

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko  
Unibertsitatea



Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea  
Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación

POLITIKA ZIENTZIAKO ETA KUDEAKETA  
PUBLIKOKO GRADUA  
IKASTURTEA 2016-2017

TOKIKO GIZARTE MUGIMENDU GLOBALEN  
LIDERGOAK: EMAKUMEEN MUNDU MARTXA ETA  
VÍA CAMPESINA

EGILEA: IAGO LEKUE LÓPEZ  
ZUZENDARIA/DIRECTOR: IÑAKI BARCENA HINOJAL

Data, 2017ko XXXren XXa

## Aurkibidea

---

1. SARRERA.....	4
1.1 Lanaren aurkezpena.....	4
1.2 Ikerketaren helburuak.....	5
1.3 Hipotesiak.....	6
2. METODOLOGIA.....	8
2.1 Teknika dokumentalak.....	8
2.2 Elkarriketa teknika.....	9
3. MARKO TEORIKOA.....	11
3.1 Lidergoaren analisiaren eboluzioa.....	11
3.1.1 Kontzeptua.....	12
3.1.2 Kontzeptuaren sailkapenak.....	15
3.2 Gizarte mugimenduen analisiaren eboluzioa eta kontzeptuaren sailkapena.....	19
3.3 Gizarte mugimenduen eta lidergoaren arteko harremana.....	25
3.4 Egungo ikerketak.....	26
3.5 Populismoaren eta globalizazioaren aldagaiak.....	32
4. KASUAK.....	38
4.1 Vía Campesina.....	39
4.2 Emakumeen Mundu Martxa.....	45
5. ONDORIOAK.....	52
BIBLIOGRAFIA.....	54
WEBGUNEAK.....	58
ERANSKINAK.....	60

## **Resumen**

El presente estudio tiene como objetivo principal examinar la forma y construcción de los liderazgos, tanto a nivel global como local, de dos de los más importantes movimientos sociales internacionales: La Vía Campesina y la Marcha Mundial de las Mujeres. En este sentido, el análisis abarcará la historia de ambos movimientos sociales desde la década de los 90, hasta la época actual. Para ello, se hará uso de un marco teórico necesario sobre el cual se cimentará el resto del estudio. De igual manera, dicho marco teórico se verá reforzado gracias al análisis profundo de los liderazgos, las características internas, las estructurales y las situacionales de ambos movimientos sociales. Asimismo, para finalizar se realizará una breve comparación entre ambos; resaltando las similitudes, además de evidenciar las diferencias entre los liderazgos de los movimientos citados y los de los liderazgos tradicionales.

## **Laburpena**

Hurrengo ikerketa honek maila sozialean gertatutako bi mugimendu garrantzitsuenetarikoen lidergoaren molde eta eraikuntzaren azterketa du helburu nagusi, bai maila globalean eta baita lokalean ere; Vía Campesina eta Emakumeen Mundu Martxaren mugimenduak, hain zuzen ere. Oinarri horretatik abiatuz, lan honek bi mugimendu horiek 90.hamarkadatik aurrera izandako garapena aztertuko du, beti ere garaiko marko teorikoa irizpidetzat hartuz. Marko teoriko hori, gainera, lidergoen inguruko analisiarekin irmotuz joango da, bai eta barne ezaugarri eta estrukturalekin, edota bi mugimendu sozialen egoerarekin ere. Era berean, bi mugimenduen arteko alderaketarekin amaituko da hurrengo lana, haien lidergo motaren eta lidergo tradizionalaren arteko ezberdintasunak azpimarratzearekin batera.

## **Abstract**

The main objective of this research is to observe the form and construction of the leaderships, both globally and locally, of two of the most important international social movements: La Vía Campesina and the World March of Women. In this sense, the

analysis will cover the history of each social movement from the decade of the 90s, until nowadays. For this purpose, a theoretical framework will be used, on which the rest of the study will be based. Likewise, this theoretical framework will be strengthened thanks to the deep analysis of the leadership, internal, structural and situational characteristics of both social movements. Finally, a brief comparison will be made between them; highlighting the similarities, as well as highlighting the differences between the leaderships of the above mentioned movements and those of the traditional leadership.

**Hitz gakoak:** Gizarte Mugimenduak, Lidergoa, Globalizazioa, Populismoa, Feminismoa, Nekazal Mugimendua, Emakumeen Mundu Martxa, Vía Campesina.

## 1. SARRERA

---

### 1.1 Lanaren aurkezpena

---

Nire lana gizarte mugimenduetan eman diren lidergoen ikerketa bat da. Hots, egungo gizarte globalizatuan, gizarte mugimenduen eta lidergoen arteko loturen hurbilketa saiatuko naiz egiten. Hortaz, horiek izango dira lanaren klabeak eta aztertu beharreko kontzeptuak. Hau aurrera eramateko bi mugimendu aukeratu ditut, alde batetik Vía Campesina, nekazal mugimenduaren erreferentea, eta bestetik, Emakumeen Mundu Martxa, mugimendu feministaren adibide adierazgarri bezala.

Ezer baino lehen, lanaren funtsa, marko teoriko sendoa eraikitzea da. Nire kasuan, lidergoaren eta gizarte mugimenduen analisi teorikoa egin behar izan dut. Kontuan izan behar da lidergoa oso termino irristakorra dela, ez baitago definizio bakar edo unibertsalik, gainera, akademiak orokorrean, albo batean utzi duen kontzeptua izan dela baieztatu dezakegu. Era berean, lidergoa gizartearen hainbat esparrutan aurki daiteke, hala nola, ekonomian, politikan, kirolean... Baina kasu honetan, gizarte mugimenduetan ematen diren lidergoetan jarriko da arreta, lidergo politikotik abiatuz. Alderantziz gertatzen da gizarte mugimenduekin, izan ere, azken mendean zehar korrante desberdin ugari garatu izan arren, kontsentsurako joera handiagoa egon da, bi teoria analitiko nagusi ezarriz.

Halaber, mugimenduen testuinguratzea eta hauei buruzko informazioa lortzea ezinbesteko lana da. Bi mugimenduak maila internazionalen zein lokalean aritutakoak dira, eta are gehiago, herrialde bakoitzean modu ezberdinetan jardun dute. Beraz, beharrezkoa da modu neurridun eta arretatsuan ikertzea.

Bukatzeko, behin ikerketa tresnak erabilitakoan eta emaitzak lortutakoan, nire planteamenduak eta lortutako emaitzak ondorio zein konklusio gisara aurkeztuko ditut.

Ikerketa gai eztabaidagarri eta polemikoa izan daiteke, baina era berean, gutxi landu izan den problematika aurkezten da. Lidergoa historian zehar eman den fenomeno izan da, eta nabarmen zelai politikoan. Iritzien, ideien eta ideologiaren sortzaileak edota astintzaileak ere izan dira, egoeren jabe bihurtuz. Horregatik, aztertu beharreko kontzeptu garrantzitsua da, izan ere, ekintza kolektiborako –eta are gehiago maila

internazionalan kokatzen bagara– ezinbesteko eginkizunak burutzen baititu. Bestalde, honekin lotuta, egia da egungo gizarte mugimendu populistei erreparatzea ere gustatuko litzaidakeela, bai eskumako zein ezkerreko, baina oraindik bukatu gabe dagoen afer bat denez eta kanpo-ikuspegi edo optika urrun batetik aztertzeke zailtasunak identifikatu ostean, gaiaren aldaketa nahitaezkoztat jo dut. Hala ere, populismoaren kontzeptua lanean zehar kontuan izan dudala azpimarratu nahi dut.

Mugimenduei dagokionez, bi sare handi eta internazional aukeratu izan ditut. Neoliberalismoaren ordenu globalaren kontrako mugimenduak dira biak, horregatik, beste gauza batzuen artean, mugimendu altermundialistaren barruan sar ditzakegu. Gainera, biak 90ko hamarkadan hasi ziren eta gaur egunera arte dira. Lehenik eta behin, Vía Campesinako mugimendu zabala azaltzen da, nekazarien eskubideen defendatzaile, eta orokorrean, sistemak sortutako egoera prekarioen aurka egiten duen erakunde nazionalen sarea. Bestalde, Emakumeen Mundu Martxa (oraindik aurrera EMM bezala aipatua) aukeratu dut aztergai gisa. EMMa mundu osoko emakumeen arteko elkartasun eta protesta mugimendua da. Bertan, aurrekoan bezala, herrialde diferentetako kolektiboak batzen dira, eta are gehiago, beste mugimenduekin zubiak eraikitzen dituzte.

## 1.2 Ikerketaren helburuak

Lan honen helburu nagusia, nazioarteko gizarte mugimenduetan (Vía Campesinan eta Emakumeen Mundu Martxan), 90eko hamarkadatik egunera arte, maila globalean zein lokalean eman diren lidergoak nolakoak diren eta nola eraiki diren aztertzea da. Oro har, ikerketak lidergoaren inguruko ikuspuntu ezberdinak irudikatzea izan du helburu zehatz moduan; alde batetik, erakundeen kideena dagoelarik eta, bestetik, liderrena, azken hauek aginte eta organizazio-botere handiagoak barne hartuz oinarriko-militanteekin alderatuz gero. Horretarako, gizarte mugimenduen teorietan eta lidergoaren kontzeptuaren azterketan sakondu dut.

Ildo beretik, bi kontzeptuen aldagai nagusiak ikertu ditut eta bakoitzak izandako eboluzioa ikusi dut. Bestalde, aukeratutako bi mugimenduak aztertu ditut: lidergo mailak, egitura edo antolaketa ereduak eta ekintza kolektiborako moduak. Gainera, mugimenduek emandako lehenengo pausuen jarraipena egin dut eta haien helburuak lortzeko zer nolako estrategia eraman dituzten ikusi dut. Halaber, bi mugimenduak

antzekoak izateak, eta askotan modu bateratuan elkartu eta ekin izanak, testuinguruan jartzerakoan zein analisia egiterakoan, antz handiko ezaugarriak identifikatzera eraman nau. Kontuan izan behar dira, baita ere, bi aldagai transbertsalen garrantzia: populismoa eta globalizazioa. Izan ere, azken urteotan emandako populismoaren gorakadak eta globalizazio eredu desorekatu baten zabalkuntzak, gizarte mugimenduetan eragina izan dute, baita lidergo berrien agerpenean.

Era berean, ikerketak helburu konparatiboak izan ditu. Izan ere, bi gizarte mugimenduen artean eman diren desberdintasunak eta lidergoen nolakotasunak identifikatzea funtsezko izango da lanean zehar.

### 1.3 Hipotesiak

---

Horiek horrela, gaia, aztergaiak eta bi mugimenduak aurkeztu ondoren, hurrengo lerroetan ikerketak ebatzi nahi dituen hipotesiak azaltzen dira.

Hasteko, maneiatzen dudan hipotesi nagusia hurrengoa da: bi mugimenduak internazionalak diren heinean, eta herrialde askotan daudenez, Vía Campesinaren, baita Emakumeen Mundu Martxaren lidergoak, ez daudela pertsona bakar baten esku. Hau da, lidergoa kolektiboa da.

Bigarren mailako hipotesiei dagokionez, ustez azken urteotan alderdi politiko sortuberrietan agertutako populismoa ez da aukeratutako mugimendu globaletan ikusi. Hau da, bai Estatu mailan zein Europa mailan (edo demokrazia mendebaleko Estatuetan) ardatz ideologikoaren edozein puntutik sortutako alderdi populistek (UKIP, Podemos, Trump – Alderdi Errepublikarra, LePenn – Fronte Nazionala...), ez dute gizarte mugimenduen baitan, behintzat epe laburrean, populismoaren estrategia gailentzea lortu.

Era berean, Vía Campesinan lidergoen sexu-oreka ematen da, EMMan lider guztiak emakumeak izango direla jakinik. Izan ere, mugimendu feminista bat izanik, mugimenduaren abangoardia emakumeek izango dute, honek esan nahi du, mugimenduaren baitan gizonezkoak egotekotan, agian beste funtzio batzuk izango dituztela, beste gizonezkoekin lan pedagogikoak egitea adibidez. Vía Campesinari dagokionez, nekazal mugimendu internazional demokratikoa izatea eta munduan zehar

nekazari asko emakumezkoak direla jakinda, emakumeek ere lidergo funtzioak izango dute, hots, modu parekatuan ordezkaturako litzateke lidergoa.

Bestalde, aipagarria da antolakuntza estruktura malguagoak izateak, lidergoak sortzea zailtzen duela. Hipotesi hau erabakitzeke ahalmenean oinarrituta dago. Izan ere, ustez, erabakitzeke modua geroz eta demokratikoagoa izateak (hots, taldeko pertsona guztien iritzia modu berdinean baloratzea) lidergoen agerpena zailtzen duela suposatzen du. Ondorioz, ikerketan zehar mugimendu bakoitzaren antolakuntza estruktura eta erabakihartze metodoa ikusiko dugu, jarraian hipotesia berresteko.

Bukatzeko, Vía Campesinan eta Emakumeen Mundu Martxan eraikitako liderrek pareko ezaugarriak azaltzen dituzte. Biek egoera berdinean lan egitea, internazionalak izatea eta altermundialistak izatea, hipotesi hori formulatzera eraman nau.

Aurkeztutako hipotesi hauek marko teorikoan, kasuen azterketan eta metodologiaren azalpenean zehar erantzungo dira. Hala ere, ondorioetan erantzun guztiak bilduko ditut eta hipotesiak bete diren ala ez frogatu.



## 2. METODOLOGIA

---

Metodologiari dagokionez, kasuen azterketa egitea erabaki dut. Hau egoera zehatz baten analisi sakonean datza, aztertzen ari den kasua ulertzeko eta bere berezitasunak ongi interpretatzeko (Fondevila eta del Olmo, 2013). Fenomeno garaikide bat, bere testuinguru errealean, ikertzen duen ikerketa enpirikoa da, non fenomenoaren eta testuinguruaren arteko mugak era lauso batean erakusten diren, baina ziurtasun-iturri anitzak erabiliz (Yin, 2002). Dena den, kontuan izan behar dugu azterketan informazio edo interpretazio subjektiboak egon daitezkeela.

Teknika metodologikoei dagokionez, gehienbat teknika dokumentalak erabili ditut, hau da, jada bi mugimenduei buruz idatzi dena eta haiek bere kabuz idatzi dutena bildu izan dut. Bestalde, elkarriketa teknika erabili dut, informazioa modu zuzen eta zehatzean lortzeko, eta era berean, aurrean lortutako datuak osatzeko.

Bukatzeko, teknika gehiago erabiltzea gustatuko litzaidakeela azpimarratu nahi dut, taldeen edo bileren behaketak edota eztabaida taldeak besteak beste, baina egoera eta baliabideak direla medio, ezinezkoa izan zait.

### 2.1 Teknika dokumentalak

---

Teknika dokumentalek inprimatutako edozein agiri, grabatutako ikus-entzunezko dokumentu, aldizkari... barne hartzen dute. Hauek informazioa lortzeko eta berraztertzeko tresna oso baliagarriak dira. Bi teknika desberdin azaltzen zaizkigu azterketa dokumentalean: analisi formala eta edukien analisia (Fondevila eta del Olmo, 2013). Analisi formalak dokumentu baten deskribapena egiten du, baieztapen edo aipamen subjektiborik egin gabe. Bestalde, edukien analisiak dokumentuen informazioa hartu eta interpretatzeko aukera ematen du.

Era berean, garrantzitsua da dokumentuen autoretza garbi izatea. Izan ere, desberdintasunak daude mugimendu propioek idatzitako, argitaratutako edo aurkeztutako agirien, eta akademiak, prentsak edo beste kolektiboek haietaz idatzitakoen agirien artean. Horregatik, aipagarria da lehen mailako iturrien eta bigarren mailako iturrien bereizketa egitea. Lehen mailakoak informazio originala duten liburu, aldizkari zientifiko, dokumentu ofizial eta abarrekoek osatzen dute. Bigarren mailakoak

aldiz, lehen mailako iturrien interpretazioa edo analisisa egiten duten entziklopediak, artikuluak, liburuak edo beste ikerketak aztertzen dituzten dokumentuak. Azterketan zehar bi motetako dokumentuak erabili ditut.

## 2.2 Elkarrizketa teknika

---

Teknika dokumentalekin lortutakoa osatze aldera, bi elkarrizketa egin ditut. Aldez aurretik, elkarrizketa gehiago egitea planteatu zen. Alde batetik, bi mugimenduetako militante edo kideei, eta bestetik, antolakuntza egituran erabakitze-botere handiagoa zuten beste bi kideei. Baina lehen aipatu dudan moduan, anbizio handiko ikerketa izateak zailtasunak handitu ditu.

Elkarrizketei dagokionez, biak semi-egituratuak izan dira. Izan ere, gidoia (item eta galdera zehatzekin) egon eta mantendu da, baina elkarrizketetan zehar aldaketa batzuk izan ditu, bai erantzunak ez errepikatzeko, baita atera diren gai garrantzitsuei buruz gehiago sakontzeko. Halaber, galderak irekiak izan dira, elkarrizketatuak luze eta zabal erantzuteko.

Lehenengo elkarrizketa Paul Nicholsonekin izan zen, EHNEko (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) kidea, Vía Campesinako Nazioarteko Koordinazio Batzordearen sortzaile eta bultzatzaileetako bat eta ogibidez nekazaria. Paul Nicholson Vía Campesina nekazal mugimenduaren giltzarri bihurtu da, Europako mugimenduaren bozeramaile ez-ofiziala bilakatu arte.

Bestetik, Itziar Gandariasekin bildu izan naiz. Gizarte Psikologian doktoratua eta Osasun Mentaleko gradu-ondokoa indarkeria politikoan eta hondamendietan eginda. Itziar, Munduko Emakumeen kide eta 2011tik egunera arte, Emakumeen Mundu Martxako antolatzaile eta bozeramaileetako bat da Euskal Herri mailan, EMMko bileretara joateaz gain, talde dinamizatzailearen kidea da.

Bi pertsona hauek aukeratzearen arrazoiak ugariak dira. Lehenik eta behin, garrantzitsua iruditu zait alde batetik, bi mugimenduetako pertsonak elkarrizketatzea, eta bestetik, begirunez eta erantzukizunez jokatzeko, sexu-ardatza eta adin-ardatza errespetatzea. Egia da bi mugimenduak transnazionalak direla eta seguruenik, zailtasunak zailtasun, beste herrialdeko pertsonak ere elkarrizketatu beharko nituzkeela, baina ezin izan dut.

Halaber, arestian adierazi dudan moduan, hasieran planifikaturiko elkarrizketak egiteko ezgaitasuna ikusita, bi mugimenduetako pertsona arduradunak elkarrizketatzea erabaki dut. Izan ere, ikerketarako eta informazio aberatsagoa lortze aldera, beharrezkoagoa iruditu zait mugimenduen baitan ardura edo erabakitzeko gaitasun handiagoa duten militanteei galdetzea.

Elkarrizketei dagokionez, Paul Nicholsonena Derion ospatutako Vía Campesinaren Nazioarteko VII. Konferentzian egin nuen, uztailaren 17an hain zuzen. Hasieran zailtasunak izan genituen leku apropos bat topatzeko, baina behin aurkituta eta aurkezpena eginda, elkarrizketa oso lasai eta atsegina izan zen.

Bukatzeko, bi egun geroago, Itziarrekin Bilboko alde zaharrean bildu nintzen, berak proposatutako taberna batean. Elkarrizketa Nicholsonena (50 minutu inguru) baino luzeagoa izan zen, ordu bat ingurukoa. Hala ere, entretenigarria eta arina iruditu zitzaidan, eta ez zen inolako arazorik egon. Bi elkarrizketatuek informazio baliogarri ugari eman zuten eta horretaz gain, haien historia propioa eta esperientzia azaldu zuten.

### 3. MARKO TEORIKOA

---

Behin azterketaren zergatia eta helburuak azalduta, hurrengo atal honetan, lanean zehar erabiliko diren kontzeptuei erreparatuko diet, besteak beste, gizarte mugimenduei eta batez ere, lidergoari. Era berean, kontzeptu hauek landu dituzten autoreak, honi buruz egon daitezkeen korrontek, egungo ikerketak edota ikuspegien arteko desberdintasunak aztertuko ditut.

#### 3.1 Lidergoaren analisiaren eboluzioa

---

Arestian aipatu dudan bezala, alde batetik “lidergo” kontzeptua aztertuko dut eta bestetik, “gizarte mugimenduak”. Jakin badakigu hainbat aldagaiez osaturiko kontzeptuak direla, baina hala ere, aurrerago ikusiko dugunez zabaltasuna zedarrizten joan gara. Kontuan izan behar da, aztergaia bi ardatzez zeharkatuta dagoela eta beraz, nahiz eta kontzeptuak bereizgarriak izan, momentu batzuetan azterketak bi kontzeptuen lausotze eta batasuna suposatuko duela.

Beraz, lidergo-kontzeptuagatik hasiko naiz. Ondoren, eman diren lidergo mota nabarmenenak aurkeztuko ditut. Lidergoa, edozein motakoa izanda (ekonomikoa, burokratikoa, politikoa, artistikoa, kulturala...), gizartearen geruza askotan eta zirkunstantzia desberdinetan eman ohi da, horregatik jarraian, historian ibiliko naiz eta lidergo politikoan jarriko dut begirada, baina ez soilik politika instituzionaletik ulertuta, eremu sozialetik ere. Izan ere, lidergoa pertsona –edo pertsona talde– bat, beste pertsona batzuegan eragina izateko gaitasuna eta ahalmena da, helburu definitu batekin, modu zehatz batean pentsarazi edota jardunarazi egiteko. Horrela, lidergoa egun existitzen diren giza-estruktura guztien elementu intrintsekoa da, nahiz eta maila desberdinak egon.

Horiek horrela, egun lidergo terminoa gizartearen esparru anitzetan ikus dezakegu, gehienbat arlo ekonomikoan eta antolakuntza teorien baitan landua. Baina adierazi dudan moduan, oraingoan lidergoaren zentzu politiko-sozialena aztertuko dut. Horretarako, eta gaiarekin ohitzen hasteko, lidergo politikoaren analisia egingo dut. Egia da gai erakargarria izan daitekeela baina era berean, oso zabala eta anbigua adiera bakarreko azterketa zientifikoa egiteko. Hortaz, lehen arazoa hau definitzerakoan dator. Izan ere, asko izan dira kontzeptuari zentzu zehatz bat ematen saiatu izan direnak eta ez

duinak lortu (Bennis eta Nanus, 2001). Beraz, hurrengo lerroetan lidergo kontzeptuaren eta honen izaera politikoaren ibilbidea aztertzen saiatuko gara.

### 3.1.1 Kontzeptua

Historiari erreparatuz, lidergoaren inguruan egindako lehen hurbilketa Platonen edota Aristotelesen teorian aurki daitezke, horrela adierazten du Tintorék (2003). Platonek, Errepublika liburuan “filosofo-erregearen” figuraren bitartez gobernari kompetentea irudikatzen zuen. Honek, bere herrikideentzat ona izango zena ezagutuko zuen eta hauen mesedetan egongo litzateke. Era berean, hiritarrak edo gobernatuak, filosofo-erregeak Polisarekiko sentitzen zuen maitasunarekin bat etorriko lirateke. Aristotelesek –Platonen ikaslea izandakoa– modu berdintsu batean azaldu zuen lidergoaren afera *Ethika Nikomacheia* liburuan. Bere maisua bezala, zerbitzu moduan ulertzen zuen politika, eta ondorioz, haren aburuz, politikari onena, *Poliseko* herritarren zorientasun osoa lortzen saiatuko litzatekeena izango zen. Politikaren eta liderraren ikuspegi hauek luzaroan izan zuten garrantzia. Alabaina, Hiponako Agustinek hainbat mende geroago liderraren inguruan antzeko diskurtsoa garatu zuen, hurrengo baieztatuz: “lider guztien asmoa, lideratzen dituzten pertsona ororen egoeraren hobetzea da”<sup>1</sup> (Cardona, 2000, 9 orr.). Hala ere, lidergoa lortzeko modura dagokionez, ikuspuntu desberdinak planteatzen zituzten antzinaroko pentsalari hauek. Izan ere, Platonek, *Errepublika* liburuan, hezkuntza bitartez eraturako lidergo behartua proposatzen zuen. Aristotelesek aldiz, *Politika* obran, trebetasun naturalen multzo moduan deskribatu zuen kontzeptua.

Behin oinarri historikoak finkatuta, aro modernoaren hasieraraino aurrera pausoa egin daiteke, Makiaveloren teoriataraino hain zuzen. Halatan, Nikolas Makiavelorentzat abilezia, pragmatismoa, inteligentzia, xarma pertsonala eta bihotz gabetasuna –hau da, XVI. mendeko moral eklesiastiko hegemonikoa politikatik kanpo uztea– beharrezkoak ziren lider ona izateko. Makiaveloren ikuskera negatiboa zela baieztatzen dute askok, pertsonak soilik haien interes pertsonalengatik mugitzen zirela pentsatzen zuelako, eta hortaz, liderrak bakarrik onura propioen bila mugitzen zelako. Pentsamendu honek XX. mendera arte iraun zuen, baina Makiavelok lidergoaren teoriaren funts berriak finkatu zituen, gaitasun eta ezaugarri pertsonaletan oinarrituz. Honekin zeharo lotuta, Hobbesen

---

<sup>1</sup> Seguru aski, lidergo terminoa itzulpen moderno baten emaitza da. Izan ere, Hiponako Agustinen garaian ez zen terminoa existitzen.

Leviatan liburua aurki genezake. Hobbesentzat, liderraren oinarrizko zeregina jendearen pasioak eta desirak kontrolatzea da, horrela gizartea modu arrazionalen jardun dezan.

Aro garaikidera hurbiltze arren, Natera-Peral (2001) irakasleak, lidergoaren fenomenoaren hurbilketa akademikoa egin duten lau garai edo ikuspegi identifikatzen ditu: ezaugarri pertsonalen ikuspegia, portaerarena, posizional-kontingentea eta “ikuspegi berria”.

A) Ezaugarri pertsonalen ikuspegiak edo azterketak, XX. mendeko lehen hamarkadetan izan zuen garrantzirik handiena. Honen arabera, liderrak beste norbanakoengandik bereizten dituen berezko gaitasun batzuk ditu. Baina arazoak, jaiotzezko edo esperientzien bitartez bereganatutako gaitasun horiek identifikatzerako orduan agertzen ziren. Mundu osoan aintzatetsiak diren lider politikoen bereizgarri guztien batuera egin dute ikerlari askok, baina zaila da argitasunez identifikatzea. Natera-Peralek, Stogdillen azterketa (1974, 259 orr.) hartzen du besteak beste erreferentzia gisa lidergoaren eragile pertsonalak zeintzuk diren jakiteko. Berarentzat, gaitasuna, errendimendua, erantzukizuna, partaidetza eta lidergoari atxikitutako faktore nagusiek sortzen zuten *statusa* dira liderren ezaugarrietako batzuk. Era berean, Michelsek (1962, 188 orr.) erretorika, borondatea, irmotasun ideologikoa, norberarengan konfiantza izatea, onberatasuna eta eskuzabaltasuna nabarmendu zituen liderren bertute garrantzitsuen artean.

B) Bigarren ikuspuntua konduktibista edo behaviorista da, hots, portaerari buruz aritzen dena. Honen arabera, liderrak identifikatzea eta kuantifikatzea ez da hain garrantzitsua. Izan ere, oinarria historian zehar erreproduzituak izan diren lidergoen praktika zehatzen antzematean datza, ondoren orokortzeak ezartzeko. Horiek horrela, Natera-Peralen ustez, ikuspegi honen bidez lidergoa ez da banan-banan ezta modu estatiko batean ulertzen. Jarraian lidergoaren bi definizio aipatzen ditu, alde batetik Maisonneuena (1983): “lidergoa taldearen funtzionamendurako beharrezko portaera sistema bat bezala hartu behar dugu, hau da, bere estrukturazioaren ezaugarri dinamiko eta kondizio bezala”; eta bestetik Hemphillena (1954): “lidergoa, talde edo erakunde batek partekatzen

dituen helburu batzuen bila gidatzeko konprometitzen den gizabanako baten portaera da” (biak Natera-Peralen, 2004, 5 orr. aipatuak). Hari beretik, Natera-Peralek liderren portaerari dagokionez bi multzo nabarmentzen ditu. Batetik, zereginak eta taldearen ekintzak betetzera orientatutako lidergoa; eta bestetik, beste pertsona batzuegan eragitera bideratutakoa.

C) 1960ko hamarkadatik 1980ko hamarkadara ikuspegi posizional-kontingentea egon zen indarrean. Honen arabera, lidergoa, aktoreak –liderra izango den gizabanakoak– testuinguru zehatz batekin izan dezakeen interakzioaren ondorioz ematen da. Kasu honetan, lidergo-mota diferenteak sortzea posiblea egiten duten faktoreek denbora-baldintzak eta toki-baldintzak dira. Honekin zeharo lotuta, Northousek (2001) ondorio bezala, egoera desberdinek lidergo mota ezberdinak behar dituztela baieztatu zuen. Ondorioz, perspektiba honek lidergoak sortzen eta garatzen diren egoera aldakorretan jarri zuen arreta. Izan ere, egoera, testuingurua eta baldintzak zehatzak diren heinean, eman daitezkeen lidergoak ere, zehatzak izango dira. Hots, kondizio konkretu batean ematen diren lidergoak, behar bada, ezin dira beste kondizio batzuetan eman. Horregatik ezinbestekoa da ingurunea aztertzea eta sortu daitezkeen aldaketak ulertzea. Hurrengo definizioa nahiko ongi definitzen du ikuspegi honen noranzkoa: “lidergoa egoera batean ematen den pertsonen arteko eragina da, komunikazio prozesuaren bidez zuzendua eta helburu zehatz baten edo batzuen lorpenaren bila doana”. (Tannenbaum, Weschler eta Massarik, 1961, 24 orr.)

D) Amaitzeko Natera-Peralek, azken azterketa mota bezala, “lidergo berria – “teleologikoa” ere deitua– aipatzen du. 1990etik aurrera emandako perspektiba dugu hau, hori dela eta, nahiko modernoa dela baieztatu dezakegu. Oro har, planteamendu honek beste ikuspegi sintesia egiten du eta ondorioz, bere teoria propioa eraiki modu multidiziplinar batean. Ideia, dirudienez “*new management*” antolakuntza-teorien gailentasunagatik influentziatua dago. Nolanahi ere, hurbilketa teoria honen punturik garrantzitsuenetarikoa *ikusker*a kontzeptuaren ulerkeran datza. Izan ere, ikuskera, erakundearentzat errealista, sinesgarria eta erakargarria den ideia bezala ulertu behar da, zeinak “etorkizunaren abiapuntua sortuko duen, hau lortzeko beharrezkoak diren

gaitasunak, trebetasunak eta errekurtsioak piztuz eta erakundea zer den ez dakiten guztiak edo honen noranzkoa ulertzen ez dutenak zuzenduz” (Nanus, 1992). Horiek horrela, lidergoa lider batek aipatutako ikuskera definitzeko, artikulatzeko eta komunikatzeko duen gaitasuna dela baieztatzen du Natera-Peralek.

Aurreko lerroetan zehar, lidergoaren kontzeptua eta honi buruz egin izan diren hurbilketak nola aldatu diren aztertu ditut. Azken hurbilketa teorikora ailegatzeko zenbait ikuspegi desberdin azaldu ditut, batez ere garrantzitsuenak eta ekarpen gehien ekarri dituztenak. Halaber, perspektiba guztiek funtsezko aldagai batzuk dituzte, horien artean karisma izatea.

### 3.1.2 Kontzeptuaren sailkapenak

Jose Valencia Garatek (2005), modu nahiko zehatzean aztertzen du karisma. Elementu hau liderraren eta jarraitzaileen artean ematen den harremanean datza: liderra “identifikazio-prozesuak sortzen laguntzen nahiko hurbil dago jarraitzaileengandik eta irudi horren eta ezezagunen aureola mitikoaz jantzita egoteko nahikoa urrun ere bai” (Valencia, 2005, 67-68 orr.). Era berean, harreman hori hausteko aukera ere badago. Izan ere, liderrak, jarraitzaileen espektatibak betetzeari uzten dionean, hau da, jarraitzaileek espero zuten guztia jasotzen ez dutenean, liderrarekiko mendekotasuna eta karisma desagertzen dira. Halaber, Valencia Garatek lidergo karismatikoa sistemaren hierarkiako maila altuenetan agertu ohi dela baieztatzen du.

Weberrek ere lidergo karismatikoaren afera landu zuen. Izan ere, hiru menperatze mota daudela baieztatu zuen (Weber, 1922). Hasteko, legitimazioaren kontzeptua aurkeztu du, dominazioaren onarpen sozial bezala, hau da, sumisioaren ohitzea. Jarraian legitimazio-oinarri desberdineko hiru dominazioak aurkeztu ditu:

1. Arrazoi izaerakoa: legitimazio honek argudio etiko-arrazionaletan du jatorria. Gobernariak legeak dioelako agintzen du, eta parlamentuan demokratikoki hautatua izan delako. Hau modu hoberena izango litzateke, helburu zehatz batzuk (segurtasuna, askatasun indibiduala...) lortzeko, baliabideak (hertsadura estatuala) erabiltzeko. Legitimazio mota hau demokrazia ordezkatzailerik



atxikitzen zaio, izan ere, logika honetan, ordezkarien hautaketa hauteskunde bidez egiterakoan, herriaren gobernuaren eraikitze modurik hobereena dela pentsatzen delako.

2. Izaera tradizionalakoa: legitimazio hau iraganeko indarretan oinarritzen da, taldearen tradizioetan. Adibide gisa antzinako monarkiak agertzen dira, non subiranoak zerbitzariak dituen eta ez funtzionarioak, eta menperatuak kideak baizik, menpekoak edo jopuak diren. Obedientzia, lehen arrazoi etikoetatik bazetorren, kasu honetan, errukian oinarrituko litzateke, eta erabakia zein boterearen legitimazioa, tradizioaren arauetan edo subiranoaren erabaki arbitrarioengatik etorriko litzateke.
3. Izaera karismatikokoa: Hasteko, karismak ezin du zentzu objektibo erreala izan, jarraitzaileengan eraikitako aldagaia baita. Era berean, gizagaindiko ezaugarri bezala hartzen da karisma, benetan ohiz kanpoko gaitasunak dituzten pertsonen atxikita. Gainera, karisma dominazioarekin zeharo loturik aurkeztu da, lider karismatikok jarraitzaileak menperatzen dituelako (bere autoritatea ez ohizko ezaugarrietan oinarritzen delako). Horrela, lider karismatikoa historiaren indar iraultzailea bezala aurkezten da. “Menperatze karismatikoa, menperatze arrazionalaren eta burokratikoaren kontra egiten du, baita tradizionalaren, patriarkalaren, patrimonialaren eta estamentalaren kontra. Guztiak eguneroko menperatze moduak dira, errutinazkoak hain zuzen, eta karismatikoa ordea, horren aurkakoa da” (Weber, 1922, III. kapituluaren zehar).

Honen aurrean, Pierre Bourdieuk (1981), ideien eta taldearen interesen katalizatzaile bezala aurkezten du lider karismatikoa. Gainera komunikabideen rola azpimarratzen du karismaren sortzaile eta aktibatzaile gisa. Bourdieuk (1981) komunikabideak despolitizazio iturri bezala hartzen ditu, kultura politikoa gutxiago duten hautesleez aprobetxatzen direnak. Era berean, komunikabideak ez direla neutralak aitortzen du, are gehiago, pertsona batzuei (alderdietako buruei, lider sindikalistei...) omena kentzeko edo goraiatzeko balio dutela dio Bourdieuk. Horrela, esan beharra dago pertsonalizazioerako joera politikoak, garrantzi handia eman diola telebista eta bestelakoei, baina aldrebes ere.

Politikaren pertsonalizazioa eta espektakularizazioa ideologiaren gainbeherarekin bat etorritako fenomeno bat izan zen, eta herrialde bakoitzean, modu diferentean garatu izan da hauteskunde-sistema eta sistema politikoa zein alderdi sistema dela medio (Mazzoleni, 2010; 111 orr.). Horrela, alderdi indartsuak existitzen diren herrialdeetan –edo behintzat existitu izan diren herrialdeetan–, pertsonalizazioa motelago eman da, Erresuma Batua izango genuke adibide moduan. Aldiz, alderdi sistema ahuleko herrialdeetan –eta are gehiago sistema presidentzialistak badira– sistema ez da hauteskunde sisteman ardatzen, baizik eta hautagaien (Calise, 2000; 32 orr.). Fenomeno honen sustagarria batez ere telebista izan da, hautagaien artean aurkaritza bultzatzen eta eszenifikatzen duelako (Mouchon, 1989; 52 orr.). Ildo beretik, telebistak “politikaren norabidea aldatzeko gaitasuna hartu du, baita ulertzeko era ere. Telebistak liderren zereginak berridatzi ditu eta nork dituen aukera gehien liderra izateko erabakitzen du. Telebista da erabakitzen duena pertsona bat goian edo behean jartzea, zerbaiten alde edo kontra, zein den fidela eta zein ez dagoen ohean.” (Hart 1994, 2 orr.)

Lidergo karismatikoa krisi eta aldaketa sozialeko momentuetan agertzeko joera dauka, edo gatazkak eta ezinegon egoeretan (Deusdad, 2001, 231-232 orr.). Kasu hauetan lider karismatikoa barne batasunaren berme-gidari bihurtzen da eta jarraitzaileen edo oro har, gizarte osoaren irrikak eta itxaropenak sinbolizatzen ditu. Egun, karismaren ondorioz, alderdi politikoen buruzagitza pertsonalizatu eta pertsonifikatu egin da, karisma, boto gehiago lortzeko eta jarraitzaileen iritzietan eragin handiagoa izateko funtsezko tresna bihurtu baita.

Lider politiko karismatikoa arrazionaltasunaren ordezkari gisa eraiki da, gizartearen konplexutasunaren eta ulertezintasunaren aurrean izaki gorena bezala. Orokorrean, komunikabideak dira karisma eraikitzen dutenak, pertsonalitate bat edo bestea nabarmentzen dutenak, eta diskurtso zehatz bat zabaltzen dutenak. Horrela, karismaren aldagaien aktore desberdinak eragiten dute. Horregatik, beharrezkoa da aktore horiek kontsentsuz aritzea, bestela jomugara heltzea ezinezkoa izango baita.

Arrazoiaren karisma izango litzateke karisma ideala, ongi komuna bilatzen duena, hau da, karisma demokratikoa. Nahiz eta mugak izan, karisma demokratikoa muturretara

eramateak joera demagogiko eta manipulatzailea ekar dezakeelako. (Deusdad Ayala, 2001, 231 orr.)

Lidergoaren analisiarekin amaitzeko, interesgarria izan daiteke Jesús Tovar Mendoza (2004) soziologia maisu mexikarrak egiten duen sailkapena. Izan ere, bi lidergo eredu aurkezten digu: lidergo eredu transformazionala eta lidergo eredu transakzionala, biak gizarte mugimenduen lidergoetarako balio dutenak.

Aurrean aipatutako teoria batzuk, jarraitzaileak motibatzen edo helburu zehatzetaraino gidatzen dituzten lidergoak deskribatu dituzte, jarraitzaileei zeregin zehatzak ezarriz. Mota honi lidergo transakzionala deitzen dio Tovar Mendozak. Aldiz, jarraitzaileak haien interesetatik haratago begiratzeaz gain eramaten eta hauek gidatzeaz gain, portaeretan aldaketa sakonak sorrarazteko gai den liderrari, lidergo transformazionala izango da. Eredu honetako liderrek, jarraitzaile indibidualen beharren eta buruhausteen garapenari garrantzia ematen diete, laguntza eta taldearen izenean esfortzu handiagoak egiteko beharrezko motibazioa eskaintzen diete.

Lidergo transakzionala beraz, ez da transformazionalaren kontrakoa, izan ere hau bestearen osagarria da. Horrela, lidergo karismatikoa gainditzen du, honek jarraitzaileak eta liderrak ikuspegi berdina izatea suposatzen duelako, eta transformazionalak ordea, jarraitzaileen gaitasun kritikoa piztu nahi duelako.

**I. Taula:** Lidergo transakzionalaren eta transformazionalaren arteko alderaketa.

<b>LIDERGOA</b>	
Transakzionala	Transformazionala
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sari kontingentea: trukea saria esfortzuagatik.</li> <li>• Administrazio aktiboa: arauak ez direla desbideratzen kontrolatzen du, zuzentzen du.</li> <li>• Administrazio pasiboa: espero ziren emaitzak lortzen ez direnean esku</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Karisma: amets bat eskaintzen du, misio bat, konfiantza eta harrotasuna zabaltzen du.</li> <li>• Inspirazioa: itxaropena komunikatzen du, sinboloak erabiltzen ditu esfortzuak fokuratzeko.</li> <li>• Estimulu-intelektuala: kritikari eta</li> </ul>

hartzen du.	arazoen ebazpenari lekua uzten dio. • Kontsiderazioa: aurrez aurreko harremanak; zuzendu eta aholkatzen du.
-------------	--

**Iturria:** Jesús Tovar Mendoza, “Apuntes sobre la categoría «liderazgo» aplicada a las teorías de los movimientos sociales” artikulutik egokituta.

Beraz, lidergo transakzionalan liderraren eta jarraitzailearen iritzien batasuna bilatzen da, arazoen aurrean alde bakarreko erantzuna emateko. Baina hala ere, kontuan izan behar dugu liderrek ere jarraitzaileen influentzia jasan dezaketela, hau da, elkarrekiko eragina egongo da.

Lidergo transformazionalak arazoak konpontzeko jarraitzaileen mobilizazioa proposatzen du, hau da, elkarren arteko ideien konfrontazioa. Horrela, autoritatearen ohiko ezaguera erabili ordez, lidergoa aktibitate moduan ulertuko dugu, antolaketaren estrukturaren mobilitatea lausotuz eta testuinguru diferenteetan moldatzeko gaitasunak ahalbidetuz.

### 3.2 Gizarte mugimenduen analisiaren eboluzioa eta kontzeptuaren sailkapena

Lidergoarekin bezala, gizarte mugimenduen hurbilketa egiterakoan, antzeko arazoa azaltzen zaigu. Izan ere, bi kontzeptuek adiera eta korrante desberdinez helduak izan dira. Baina egia esanez, lidergoa edo hobe esanda, gizarte mugimenduetan eman daitekeen lidergoa, ez da hainbeste aztertu. Hori dela eta, marko teoriko zabalago bat hartu behar izan dugu. Gizarte mugimenduen kasuan ordea, teoriak askoz ere definituagoak daude eta ondorioz, errazagoa da ondorengo azterketarako oinarriak finkatzea. Hurrengo lerroetan eskola garrantzitsuenak identifikatuko ditugu eta ondoren, aurkeztutakoa gure beharretara egokituko dugu.

Horrela, Mario Dianik (1992), gizarte mugimenduen analisisian lau korrante nagusi identifikatzen ditu, hurrengo autoreetan irudikatuta: (1) Ralph Turner eta Lewis Killian, (2) John McCarthy eta Mayer Zald, (3) Charles Tilly, (4) Alain Touraine eta Alberto Melucci. Aipatutako lau eskola horietako autoreak, 70. hamarkadatik aurrera, gizarte mugimenduen analisiaren paradigma aldaketa ahalbidetu zuten korronteen ordezkariak

direla baieztatu daiteke. Izan ere, 1970tik aurrera bai Europan, zein AEBen, mobilizazio fenomeno berriak (edo 1930etik errepikatu ez zirenak) agertzen hasi ziren. Ordurako – 1970-1980 aurretik– gizarte mugimenduen azterketak gizarte masen psikologian eta ekintza kolektiboaren analisisian oinarritzen ziren, nolabait lidergoaren azterketarekin gertatzen zen bezala (Rubio, 2004). Ikuspuntu “klasiko” (Laraña, 1996; Casquette, 1998) hauek portaera kolektiboarena (Smelser, 1963), masa gizartearena (Hannah Arendt eta William Kornhauser izan ziren esanguratsuenak. Autore hauek batez ere mugimendu totalitarioen sorrera azaltzen saiatu ziren) eta gabetze-erlatiboarena (biolentzia politikoan arreta jarritz, James C. Davies (1962), Susan eta Norman Fainstein (1969) eta Ted Gurr (1970), gizarte mugimenduak, zapuztutako itxaropenek sortutako gabeziaren adierazpen bezala irudikatzen zituen ikuspuntua proposatu zuten) izan ziren.

Ondoren, hasiberri ziren protesta eta ekintza kolektibo forma berriak aztertzeko eta ulertzeko erabilgarriagoak izango ziren teoriak sortu ziren. Lehenik eta behin, Dianik, Ralph Turner eta Lewis Killianek garatutako “portaera kolektiboaren” perspektiba azaltzen digu. Ondoren, “Errekurtsoen Mobilizazioaren Teoria” (hemendik aurrera RMT). Jarraian, “prozesu politikoaren” perspektiba argitzen digu. Eta amaitzeko, Alain Touraine eta Alberto Melucciren Gizarte Mugimendu Berrien hurbilketa (NSM) aipatzen da.

## II. Taula: Gizarte mugimenduen analisirako teoria garrantzitsuenak.

<b>Teoria konduktista-kolektibista</b>	<b>Errekurtsoen mobilizazioaren teoria</b>
Gizarte mugimenduak, aleatorioki gizabanakoek bere kontrolatik kanpo zeuden egoerei aurre egiteko, emozionalki hartzen zituzten erabakiak ziren. (Turner eta Killian)	Mugimenduek, enpresa kapitalistek bezala, errekurtsoen erabilpen efizientea egin behar dute. Bost errekurtso daude: materialak, moralak, antolakuntza-sozialak, kulturalak eta giza-errekurtsoak <sup>2</sup> . (McCarthy eta Zald)
<b>Prozesu edo aukera politikoaren teoria</b>	<b>Gizarte mugimendu berrien teoria</b>
Ekintza kolektiborako edo gizarte	Egungo gizarte mugimenduak, ez

<sup>2</sup> «Resources and Social Movement Mobilization». *The Blackwell Companion to Social Movements*. Oxford: Blackwell. 2004. orr.116-52.

<p>mugimenduak aurrera eramateko beharrezkoa da gizartearen klima eta egoera/baldintzak ongi ezagutzea, are gehiago, zenbat eta baldintza gehiago mugimenduaren alde egon hobe. (Tilly)</p>	<p>daukate aurrekoekin zerikusirik. Lehengo klase gatazkak, gatazka politiko eta sozialetan bihurtu dira. (Touraine eta Melucci)</p>
---	--

**Iturria:** Nik neuk egina.

Turner eta Killiantzat (1972, 246 orr.), gizarte mugimenduak, lehen existitzen ziren portaera instituzionalizatuetatik at zeuden ekintza kolektibo mota bereziak ziren, eta honela definitu zituzten.

“Ekintza kolektiboa, komunitate zehatz batekin, aldaketa bat lortzeko edo aldaketa bati erresistitzeko gizarte horren parte den taldeak egiten du. Kolektibitate bezala, mugimendua kide mugagabeez eta mugitzeko gaitasuna duten kideez osatuta dagoen taldea da. Lidergoaren posizioa, kideen legitimazio prozedura formalen bidez baino gehiago, kideen erantzukizun informagatik ematen da”. (Turner eta Killiantzat, 1972, 246 orr.).

Horrela, gizarte mugimenduak, portaera kolektiboaren ikuspuntutik oso bitxiak diren fenomenoak ziren, berezko ezaugarri, prozesu eta barne-logikarekin. Orokorrean, konduktista-kolektiboek (collective behaviorist) gizarte aldaketara bideratutako ez-ohizko ekintza kolektibo forma bezala ulertzen zituzten gizarte mugimenduak. Gainera, mugimenduak ezin dira aurreko gizarte antolaketaren, arauen edo kulturaren bitartez azaldu, izan ere, mugimenduak hazten dauden egiturak direlako, eta hauen antolaketamodua haien bizitza zikloetan eskuratzen dutelako. Hori bai, egitura hauek instituzionalizazioa ailegatzen direnean (antolatze maila altuena bezala ulertuta), mugimendu izateari uzten diote.

Zentzu honetan, Errekurtsoen Mobilizazioaren Teoriak arreta gehiago jarri zien aldagai antolatzaileei, nahiz eta Zald eta McCarthyk aurrekoen antzeko definizioa eman, haien iritziz: “gizarte mugimendua, gizarte baten iritzi eta sinesmenen multzoa da, zeinak

preferentziak ordezkatzeko dituen, gizarte estrukturan elementu batzuk aldatzeko eta/edo gizartearen banaketa ordenatzeko”. (Zald eta McCarthy, 1977, 1217-18 orr.)

Dena den, Dianik azaltzen digun moduan, haien kezka nagusia sinesmenak ekintza bihurtzeko prozesuan beharrezkoak ziren baldintzak identifikatzean eta ikasteen zetzan. Ikuspegi honetatik beharrezkoak izango ziren bai eskarmentu politikoa zuten liderrak, baita erakunde indartsuak eta profesionalizatuak.

Charles Tillyk mugimenduen “prozesu politikoen” ikuspegia aurreratu zuen, ekintza kolektiboa gizarte baten prozesu politiko nagusietan duela sorburua defendatuz. Horrela definitu zituen gizarte mugimenduak: “Hitz egin nahi duten pertsonen eta boteretsu nazionalen arteko interakzioak dira. Pertsona horiek eskaera publikoak egiten dituzte banaketan aldaketak egiteko edo botere gehiago lortzeko, gainera eskaera horiek sostengua erakusteko ekitaldi publikoak egiten dituzte” (Tilly 1979, 12 orr.)

Beraz, baliabide antolatzaileetan oinarritu baino, Tillyren ustez gizarte mugimenduen sorrera prozesu politikoen bitartez ematen zen, non baztertutako interesak ezarritako politikan sartzen saiatzen ziren. Hau aztertzeko, Tillyk ikuspegi historikoa hartzen zuen erreferentzia moduan, historia garaikidean izandako gatazka fase handiak garaian kokatuz eta ekintza kolektiborako errepertorioetan emandako aldaketak adieraziz. Orokorrean, gizarte mugimenduak XIX. mendeko sorkuntza bezala hartu izan dira. Mende honetan zehar alderdi politikoak, sindikatuak eta bestelako erakundeak, langileen eta beste taldeen interesen alde borrokatzeko baliabide nagusiak bihurtu ziren, boterearen borroka instituzionalizatuz. Panorama honetan, talde handi batek ez zituenean bere interesak defendituak ikusten eta eskubide-gabetzea ematen zenean, hots, ezin zenean hauteskunde edo negoziaketa bitartez espresatu, gizarte mugimendua sortzen zela argudiatu zuen Tillyk.

Horiek horrela, gizarte mugimendu eta alderdi politikoaren arteko desberdintasuna bakoitzak jasan behar duen egoera politikoan datza. Izan ere, gizarte mugimenduek baliabide faltagatik, haien xede politikoa lortzeko, beste motatako taktika-katalogo desordenatuak erabiltzera behartuta daude, besteak beste; grebak, manifestazioak, protesta bilerak edota biolentzia barnean hartzen dituztenak.

Halaber, gizarte mugimenduak eta alderdi politiko formalak ispiluko irudiak dira, biak boterea bilatzen duten aktore politikoak diren heinean. Laburbilduz, bi aktoreak – mugimenduak eta alderdiak – prozesu politiko berdinatik bultzatuak izaten dira, gizarte mugimendua asmo zabaleko alderdia eta sinesmen bateratzaile moduko sistema batean bihurtuz, eta alderdi politikoa berriz, nazionalizatua eta hezia izan den mugimendua bihurtuz. (Tilly, 1979, 11 orr.).

Bestalde, “gizarte mugimendu berrien” hurbilketak, arreta gizarte mugimenduen eta aldaketa kulturalen zein estrukturalen artean dagoen harremanean jartzen du. Ikuspegi honen defendatzaile sutsuena Alain Touraine daukagu. Honen iritziz, gizarte mugimenduek, gizarte batean dagoen gatazka nagusiarekin zerikusia dute. Berarentzat gizarte mugimendua hurrengo da: “Komunitate zehatz batean ematen den klase aktore baten portaera kolektibo antolatua, bere klase aurkariaren kontra borrokan, historikotasunaren kontrol soziala eskuratzeko”. (Touraine, 1981, 77 orr.).

Aipatzen duen historikotasunak, estruktura deitzen diogunari egiten dio erreferentzia, hau da, gizarte baten norma menperatzaileen sistema orokorrari. Dianik azaltzen digun moduan, gizarte industrialetan, gatazka nagusia lana eta kapitalaren arteko aurkaritzan zetzan; “gizarte programatuan” teknokratek profesional eta intelektual kritikoen aurka egiten zuten. Gizarte zehatz batean eman zitezkeen beste gatazka guztiak edo gizarte batetik beste baterako trantsizioan eman zitezkeenak (adibidez, gatazka nazionala), gatazka nagusiaren menpekoak ziren. Horregatik, gatazka zentraletik kanpo kokatzen ziren mugimenduei “azpi-mugimenduak”, “mugimendu komunitarioak” edo “mugimendu nazionalak” deiturak atxikitu zitzaizkien.

Touraintzat (1981) bi ziren gizarte mugimendu baten parte inportanteenak. Alde batetik, gizarte mugimendu bat “identitate, oposizio eta osotasun printzipioen konbinazioa” izan behar da. Ondorioz, aktore sozialak haien burua identifikatu behar dute, baita haien aurkariak eta gatazkan dauden gaiak ere. Bestalde, Touraineek gizarte mugimenduetan ematen diren sinesmen eta orientazioen garrantzia aldarrikatzen du, bai ikasterako orduan, baita haiek beraien ekintza propioen zentzua ulertzeko.



Alberto Melucciri dagokionez –eta Touraine albo batean utzi barik– hiru dimentsio identifikatu zituen gizarte mugimenduen definizioa eraikitzeko: “elkartasuna berekin dakarren ekintza kolektibo modua, [...] gatazka batean sartuta dagoena, eta ondorioz, ondare edo balio berdinak eskatzen dituen aurkari batekiko oposizioan, [...] eta sistemak, bere estrukturak aldatu gabe, jasan ditzakeen konpatibilitate mugak apurtzen dituenak”. (Melucci, 1989, 29 orr.). Hau da, Melucciren iritziz, gizarte mugimenduak ez dira hainbeste begi-bistako gatazka politikoetan desberdintzen. Berarentzat ekintza publikoa gizarte mugimenduen esperientziaren parte bakun bat da, hots, nahiz eta ez mobilizatu edo kanpainarik ez egin, mugimenduak produkzio kulturalan – maila estrukturalan – aktibo jarrai litezke. Izan ere, alor kulturalan egon daitezkeen zenbait mugimendu, aldizka sail politikoetan mobiliza litezke.

Ikuspegi honi elkarrekintzazkoa deitu daiteke. Izan ere, ekintza soziala prozesu indibidual eta kolektiboen arteko batuketa bezala aurkezten baita, hau da, subjektuak (indibidual edo kolektiboak izanda) aktore sozial bihurtuko dira prozesu baten ondorioz, non beste aktoreen eta beraien ekintza propioen onarpena aitortua ikusiko dute. Beraz, berriro ere, gizarte mugimenduak; euren errekurtsoen parte handi bat haien ekintza sistemen egonkortasuna bermatzeko inbertitzen duten estruktura ezegonkorak izango lirateke. (Melucci, 1999).

Ikuspegi honen markoan, Melucci eta Tourainen batasuna egin dezakegu, biek dimentsio kulturalaren garrantzia azpimarratzen baitute. Era berean, gizartean existitzen diren afera sinbolikoez arduratzen dira. Norabide honetan, gizarte mugimenduak esanahi kolektiboen ekoizle bezala ulertzen dira edota etorkizuna iragartzeko gai diren “garaiko profetak” bezala ere (Melucci, 1999). Gaitasun erreflexibo horiei esker, gizartean haien proposamenak eta transformaziorako ideiak eragina izatea lortzen dute. Testuinguru honetan, orientazio kultural honen baitan, garrantzia hartzen joan dira identitateen eraikitze prozesuak eta esleipen komunitarioak (Della Porta eta Mosca, 2005; Castells, 1999; Pizzorno, 1978).

Elkarrekintzazko ikuspegi kultural honen analisi dimentsioak, gizarte mugimenduen alde kognitiboekin bat datoz, non inportanteena arazo baten eraikitzea edo gatazka soziala den. Era berean, parte emozionalek ere, garrantzia dute gizarte mugimenduen

baitan, horrela arreta jarri beharko litzaieke (ikuspegi honen eredia jarraituz) emozioei, adiskidetasunei edota sentsibilitate desberdinei. Ezaugarri hauek garrantzia hartzen dute “gizarte mugimendu berrien” agerpenarekin (hemendik aurrera GMB ere deituak), hala nola, mugimendu ekologista eta feministarekin, ez dutenak soilik mundua aldatu nahi, baizik eta bizitza ere.

### 3.3 Gizarte mugimenduen eta lidergoaren arteko harremana

Horiek horrela, hurrengo lerroetan Sidney Tarrow (1994) oinarritzat hartuz, lidergoa eta gizarte mugimendua lotzen saiatuko naiz. Hau da, Tarrow juntagailu bezala erabiliz, bata bestearen baitan sartuta dagoen heinean, gizarte mugimenduak eta lidergoa modu bakarrean aurkeztuko ditut. Hau beraz, hurrengo atalean egingo dudana azalpenerako sarrera da.

Hasteko esan beharra dago, gizarte mugimenduak oso gutxitan daudela lider edo organismo bakar baten menpe. Ekintza kolektiboan, lidergoak funtzio sortzailea dauka, talde instituzionalizatuenetan existitzen ez dena. Liderrek, jendearen babesa lortzeko, ekintza kolektiborako modu berriak asmatu, moldatu eta konbinatu egiten dituzte. Beraz, liderrek: bakan edo jarauntsiak, ohikoak edo ezezagunak, itunpeko kanpainen parte direnak edo itunpekoak diren ekintza kolektiborako erak eskaintzen dituzte.

Lidergoen funtzioari jarraipena emanez, agerikoa da, Tarrowren esanetan (1994), egoera zehatzetan erakunde mota zehatz batzuen bitartez, zenbait liderrek ekintza kolektiboa mugimendu bideragarri batean eraldatu dezaketela eta beste lider batzuk aldiz, ezin dutela. Era berean, begi bistakoa da baita ere gizarte mugimenduak liderrik gabe eraiki al direla, askotan aldaketa politiko sakonak sorraraziz. Kasu batzuetan, mugimenduaren sorreran antolatzaileak edo liderrak begirale hutsak izan daitezke eta geroago etekina atera. Hala ere, Tarrowk dioenez, liderrak gehienetan mugimenduen emaitza dira, hauen zergatia baino. Hortaz, nola azaldu daiteke rol antolatzaile hauen aniztasuna eta zein izan daiteke egokiena?

Edozein mugimendutan, ekintza kolektiboaren antolakuntza modu desberdinak egon daitezke, haietako batzuk autonomoak, beste batzuk lidergo baten menpe; eta beste batzuk erakunde formalekin harreman informalak mantentzen dituztenak. Ekintza kolektiboaren antolakuntza hobezina, normalean, gizartea bizi eta lan egiten duen

leketan sortzen diren gizarte sareetan sostengatzen da, pertsonen elkarrekiko konfiantza elkartasunean eraldatzeko erraztasun handiagoak daudelako. Hona hemen liderraren garrantzia, izan ere, hau izan beharko da bai pertsonen arteko bai pertsonen eta instituzioen arteko bat egite lotura. Tarrowk, liderra ekintza kolektiboaren erakundearekin lotzen dituen mobilizazioaren estruktura konektiboaren inportantzia azpimarratzen du, honek ahalbidetuko baitu mugimenduaren koordinazioa eta hau denboran luze irautea. Mugimendu batean erakunde formal bat agertzen denean, mugimenduaren liderrak militante eta jarraitzaileen jardueraz arduratzeko mobilizazio estrukturak garatzen saiatzen dira. Baina egia esanda, mobilizazio estrukturak mugimenduaren lidergoa sortu baino lehen zeuden elementuak izan daitezke. Hori dela eta, Tarrowk zera ondorioztatzen du: mugimendu bat erakunde edo antolatzaile bakar baten menpe gera daitekeela soilik, mobilizazio estrukturak barneratuak direnean eta ekintza kolektiboaren erakunde maila goreneko lidergoen menpe geratzen denean. Hau da, mugimendu zentralizatua sortuko litzateke. Nolanahi ere, mugimendu deszentralizatuak koordinazio falta pairatu beharko lukete eta erraztasun gehiagorekin erreprimetuko lituzkete edota desagerrarazi. Soilik mugimendu baten mobilizazio estrukturek, haien elementuak koordinatzeko ardura hartzen dutenean desagertzen da koordinazioaren arazoa, mugimenduaren oinarriari beharrezko autonomia uzten. Hortaz, mugimenduaren antolatzaileen edo liderren arazoa, aurkarien oposizioari eusteko gai diren eredu antolatzaile irmoak sortzean datza; kontuan izanik malguak izan behar direla aldaketak ekartzen dituzten egoerei erantzuna emateko, eta era berean, militante zein jarraitzaileen energiak barneratzeko.

Zenbait mugimenduk, besteak beste: ekologistak, eskubide zibilenak eta feministak, oso ongi interpretatu dute hau. Erronka, elkartasuna eta ziurgabetasuna nahasi dute haien proposamenetan, horrela jarraitzaileen babes mantendu dute eta azken hamarkadetan hazi egin dira, nolabait, oinarritu al ziren ekintza kolektiborako erreperitorio ezaguna haien esku zutelako. Aldaketara azkar egokitu dira haien liderrek trebetasun osoz, erreperitorio horietan berrikuntzak sartu zituztelako. Hala ere, haien arrakasta esanahi-marko politikoki onuragarri eta kulturalki egokiak onartzeko ahalmenean oinarritu zen.

### 3.4 Egungo ikerketak

Hurrengo lerroetan, lidergoaren eta gizarte mugimenduen arteko bukaerako sintesia egingo dut. Beraz, behin bi kontzeptuen azalpena bakarka egin ostean, eta

mugimenduen lidergoen hurbilketa sinplea eginda, oraingoan egungo ikerketen analisiari eta bi kontzeptuen azterketa sakon bateratuari ekingo diot.

Azterketaren emaitzak ulertzeko eta kudeatzen jakiteko bi kontzeptuak batera ikertzea eta ikustea beharrezkoa da. Ezin dugu baieztatu bata bestea gabe ulertezinak direla, lidergoa eta gizarte mugimenduak soilik hartuta, zentzu propioa baitute. Lidergoa leku oso diferenteetan aurki dezakegu, politikatik at ere bai, eta gizarte mugimenduek ez dute zertan lidergo baten beharra mugimendu izateko.

Horiek horrela, Aldon Morris eta Suzanne Staggenborg-en teoriak (2004) erabiliko ditut erreferente gisa. Hasteko, gizarte mugimenduen liderrak erabaki-hartzaile estrategiko bezala definitzen dituzte, beste pertsonak inspiratu eta antolatzen dituztenak mugimenduan parte hartzeko. Era berean, mugimenduen antolakuntza-estruktura desberdinetatik, lidergo diferenteak ateratzen direla baieztatzen dute. Lidergo mota desberdin hauek mugimenduen momentu ezberdinetan ager daitezke, eta batzuetan, haien arteko talkan sar daitezke. Horrela, hurrengo lerroetan lidergoen agerpena, mugimenduen beharrezko egoera estrukturalak edota liderren garrantzia mugimendua sortzerako, estrategia definitzerako eta emaitzak lortzerako orduan ikusiko da.

Lehenik eta behin, jakin behar dugu liderrak ez direla zertan ordezkutzen dituzten pertsona taldearen parte izan behar, hots, ez dira ordezkutzen dituzten pertsona ezberdinen baturaren emaitza. Horrela, Lenin, Gandhi edo Martin Luther King, nahiz eta gizartearen sektore pobrea edo langilea ordezkatu, hirurak maila ekonomiko ertaineko familietatik zetozen eta are gehiago, oso hezibide onekoak ziren. Morris eta Staggenborg-ek diotenez (2004), orokorrean gizarte mugimenduetako buruek klase ertain eta altuko pertsona heziak dira, (salbuespenak albuespen: Evo Morales, besteak beste) gainera desproporzionalki maskulinoak eta normalean haien jarraitzaileen etnia edo arraza berekoak (Brinton, 1952; Flacks, 1971, Oberschall, 1973. Morriz eta Staggenborg-en aipatua). Nahiz eta baieztapen hau mendebaldeko demokrazietarako erabili, edonola ere, ekialdeko eta hegoaldeko herrialdeetan ere berdina gertatzen da (Rejai eta Phillips 1988, Veltmeyer y Petras, 2002. Morriz eta Staggenborg-en aipatua).

Argi dago goi klaseko liderrak eta bertatik etorritakoak baliabide ekonomiko handiagoak dituztela, baita ordutegi malguagoak eta kontaktu gehiago behe klasekoekin konparatuz. Hau da, baieztatu dezakegu liderren klase-jatorriak erabakitzen duela zer tamainako kapital ekonomiko, sozial eta sinbolikoa duten (Bourdieu, 2000). Baliabide hauek garrantzitsuak dira gizarte mugimenduentzako, askotan baliabide gabeko jendea defendatzen dituztelako. Hala ere, garrantzitsuena mugimenduetako liderrentzat kapital kulturala izango litzateke, eta are gehiago, hezkuntza kapitala, sarritan oinordetzan jasota eta kapital ekonomikoaren zeharo lotuta dagoena. Beraz, beharrezkoa da lidergoari izaera intelektuala emateko, hau da, eztabaidetan nagusitzeko, komunikabideekin maneiatzeko, jendaurrean mintzatzeko, estrategiak eta taktikak diseinatzeko, barne zein kanpo eliteekin hitz egiteko... Hizkuntzaren eta bestelako sinboloen manipulazioak berebiziko inportantzia dauka zeregin hauetan.

Honek ez du esan nahi mugimendu guztietako liderrak goi klaseetatik datozela edo formakuntza pribilegiatua jaso dutela. Izan ere, komunitate pobreetatik etorritako liderrek jarraitzaileekin lortzen duten binkulua klase interesekin zerikusia dauka, lotura handiagoa duelako bertatik ateratako liderra, kanpotik datorrenarekin konparatuz. Baina hala ere, nahiz eta liderra langile klasetik edo behe klaseetatik jai, hezkuntza-kapitala ezinbestekoa izango da

Behin hezkuntza azalduta, deigarria da generoaren afera lidergoaren baitan. Izan ere, talde baten baitan eman daitekeen genero desoreka, gizarte mugimenduen lidergoen genero desorekan irudikatuko da. Instituzioetan eta bertan sor daitezke lidergoetan gehiago gizonezkoa izateak ere –mugimenduen eta instituzioen arteko lotura kontuan izanda–, gizonezkoen supremazia ahalbidetu du gizarte mugimenduen lidergoetan. Horrela, emakumeei soilik gizonezkoen bidez (emaztea, ahizpa-arreba, alaba...) utziko litzaieke ailegatzen lidergora. Baina nahiz eta mugimenduen lidergoak gizonezkoen menpe egon, genero eta lidergoari buruzko lanak aitortzen du lidergoa zenbait geruzaz osatutako fenomeno dela (Aminzade, 2001; Goldstone, 2001; Jones, 1993; Robnett, 1997 eta Taylor, 1999. Morriz eta Staggenborg-en aipatua). Robnett (1997) eta Jonesek (1993) argitu zuten emakumeak oso murgilduta zeudela bigarren mailako lidergo-eroleetan. Robnettentzat, askotan emakumeek “zubi-liderraren” papera betetzen dute, izan ere, “lidergoaren bitarteko geruza bat dira, haien zeregina hautesle eta jarraitzaile

potentzialak lotzean datza, baita lider formal potentzialak mugimendura hurbiltzea ere”.  
(1997, 191 orr.)

Egia da, liderren eta bozeramaleen artean dagoen muga apur bat difusoa izan daitekeela, baina jakin behar da, liderra bozeramalea izateaz aparte estrategia, taktikak edo proiektuak enkoardatu eta diseinatzeko dituela. Bozeramalea gehienetan botere faktikoetatik urrunago dago eta pertsona indibidual bezala aurkezten du bere burua, nahiz eta jarraitzaileak mugitzeko gaitasuna izan. Askotan azken hauek *mass-mediaren* emaitzak dira, telebista ekoizkinak, baina ez lider arduradunak. Horregatik, gerta daiteke emakumeen rola ere soilik bertan geratzea. Emakumeek beraz ez dute lidergo funtzioak izango, alderantziz, gehienetan bozeramaile “karguak” izango dituzte.

Behin barne antolaketaren gako batzuk aipatuta, hurrengo lerroetan lidergoaren eta mugimenduen sorreraren arteko harremanari ekingo diogu. Hasteko, Morrisek (2004) hiru motatako mugimendu bereizten ditu: “askatasun-mugimendua” talde zapaldu baten kideek osatzen dutena; “berdintasunean oinarritutako kontu bereziko mugimenduek” talde zapaldu zehatz batzuegan eragiten dituzten kontu espezifikoek arduratzen dira; eta azkenik “erantzukizun sozialeko mugimenduak” daude, gizartean orokorrean eragina duten egoerei egiten diete aurre. Horrela, Staggenborg-ek (1991) hiru adibide jartzen dizkigu. Alde batetik, AEBko eskubide zibilen mugimenduan, askatasun mugimendua izanda, beltzen elizak mugimenduaren lidergoak eratzeko leku aproposak ziren, eta bertako Elizaren tradizio parte-hartzaileak, zein berezko forma-kulturalak ahalbidetu zuten Eliza mugimenduaren bizkar-hezur bezala eraikitzea. Abortuaren eskubidearen aldeko “mugimendu berezian” aldiz, lidergoak jada existitzen ziren bestelako mugimenduetatik eratu ziren, hala nola, emakumeen mugimenduetatik. Horregatik hauen influentziak jaso zituzten, bai taktikei dagokionez, baita antolakuntzari dagokionez. Azkenik, erantzukizun sozialeko mugimenduek, besteekin alderatuz, antolakuntza-oinarririk gabe eratu daitezke, baita modu espontaneoan ere: tragedia pertsonalak, istripu nuklearrak... guzti hauek motiba dezakete lidergo berrien agerpena.

Sintesiarekin amaitzen hasteko, lehen aipatutako mass-mediari erreparatuko diogu. Izan ere, komunikabideek garrantzia handia dute mugimenduekin bat datozen jarraitzaile

potentzialak errekrutatzeke. Era berean, mugimenduaren aldekoen morala igotzeko eta mezuaren garrantzia transmititzeko kanal ezin hobeak dira. Gizarte mugimenduen liderrek komunikabideen informazioaren gainean iritziak ematen dituzte, prentsaurrekoak ematen dituzte, debateetara joaten dira eta orokorrean komunikabideek bilatzen dituzte liderrak, bai mugimenduari ahotsa emateko baina baita audientzia igotzeko ere. Horrela, ezker berriko mugimenduek eta GMBek lidergoarekin joera anibalentea izaten dute, alde batetik demokrazia eta espontaneitatea kontuan izaten dutelako eta bestetik, denbora laburra eta txikia dutelako komunikabideetan haien lidergo propioak eraikitzeke. Horregatik, mugimenduek ez dituztenean bozeramale formalak, komunikabideek haien liderrak zeintzuk izango diren erabakitzen dute, nahiz eta erakundearekiko eta antolakuntzarekiko erantzukizunik ez izan (Gitlin, 1980; Tuchman, 1978). Hori dela eta, antolakuntza profesionalizaturiko mugimenduek hobeto kontrola dezakete haien liderrak eta mezuak, hau da, estruktura zentralizatua duten erakundeek erraztasun gehiago izango dituzte, estruktura difusoa duten erakundeekin konparatuz. Izan ere, hauek zailtasunak izan ditzakete komunikabideei begira estrategia eraginkorrak eraikitzeke eta oinarriak ezartzen dituzten liderrek bat-batean kendu daitezke edota jarraitzaileen ukatzea jaso (Gitlin, 1980).

Gizarte mugimenduak azertu dituzten teorikoek estruktura politikoak eta ekonomikoak mugimendu bat huts egiteko edo arrakasta izateko faktore erabakigarriak direla adierazi dute (McAdam, 1982; Tarrow 1998). Baina gizarte estrukturek ezin dute strategiak imajinatu eta diseinatu, ezta erabaki hartze prozesuetan parte hartu, bai ordea giza aktoreek (Morris eta Staggenborg, 2002). Jakin badakigu, alde batetik, erabaki estrategikoak funtsezkoak direla mugimenduen baitan, honen norabidea zehazten dutelako, eta bestetik, normalean erabaki hauek liderrek hartzen dituztela, beti ere mugimenduaren antolakuntza eta hierarkia kontuan izanik.

Horiek horrela, gizarte mugimenduetan dauden betebeharrak eta zeregin diferenteei aurre egiteko beharrezkoak dira mota edo era anitzeko lidergoak. Hortaz, lau lidergo mota edo maila desberdinak ditzakegu (Aminzade, 2001; Goldstone 2001; Robnett 1997. Morris eta Staggenborg-en aipatua).

**III. Taula:** Gizarte mugimenduetan eta maila ez-instituzionalean ematen diren lidergo motak.

<p><b>1. Lidergo formala</b></p>	<p>Oinarrizko papera dute mugimenduen baitan, baina are gehiago kanpora begira, eliteengan eta interesatuengan eragina izateko.</p>
<p><b>2. Bigarren mailako lidergo taldea</b></p>	<p>Funtsezkoak dira erabaki estrategikoak hartzeko, eta mugimenduaren arrakasta ere kideen imajinazio, sormen eta gaitasun-sortzaileen araberakoa izango da.</p>
<p><b>3. Zubi-liderrak</b></p>	<p>Haien ekintzen eta lanaren bitartez, ekintza kolektiborako beharrezko babesa mobilizatzen, finkatutako helburuak lortzeko aukerak handitu edo murriztu ditzakete.</p>
<p><b>4. Kide-liderrak</b></p>	<p>Gizarte mugimenduaren oinarrian eta zimenduekin lan egiten dutenak dira, sareak eta loturak sortzen.</p>

**Iturria:** Nik neuk egina.

Lehenengo mailan lidergo formala osatzen dutenak daude, gizarte mugimenduen geruza altuenean hain zuzen, goi mailen eta eliteen artean bitartekari lanak egiten dituzte. Horretaz gain, mugimenduaren aurpegi formala eta ezaguna dira, eta mugimenduaren ardatz nagusietarikoa dira. Gainera, erabakitze botere handia izan ohi dute. Bigarren mailan, lidergo formalaren ondoan edo atzean dagoen lidergo taldea egongo litzake. Lider hauek askotan bigarren mailako posizioak hartzen dituzte gizarte mugimenduetan, baina hala ere, funtsezko papera dute lider formala ongi bideratzeko, hau da, lider formalaren bizkarrezurra direla baietza daiteke. Hirugarren mailan lehen aipatutako zubi-liderrak egongo lirateke, hau da, auzoetan eta komunitateetan goi-lidergoarekin eta jarraitzaileen gehiengoarekin bitartekaritza lanetan dabilenak, amets eta egitasmo handiak errealitatera eramateaz arduratzen direnak (Goldstone, 2001, 158 orr.). Azkenik, laugarren mailan, kideen artean harremanak sortu eta erakundeak garatzen laguntzen dituztenez gain, lidergo jardueretan parte hartzen dituzten kideak aurkitzen



ditugu. Militante tradizional bezala irudikatu daitezke eta haien rola mugimendua zabaltzea da, inurri lanetan adituak. Maila diferente hauek garrantzitsuak dira mugimenduan emaitza diferenteak sor dezaketelako. Izan ere, liderrek eta zubi-liderrek edo antolatzaileek haien ekintzen eta lanaren bitartez, ekintza kolektiborako beharrezko babesa mobilizatzen, finkatutako helburuak lortzeko aukerak handitu edo murriztu ditzakete (Robnett, 1997). Lider formalek ere oinarritzko papera dute mugimenduen baitan, baina are gehiago kanpora begira, eliteengan eta interesatuengan eragina izateko hain zuzen. Lider formal arrakastatsua “*elite-challengers*” bihurtu daitezke beste arlo batzuetako eliteekin konexio eta harremanetan jartzekotan, hala nola, partiduekin, sindikatuekin edo komunikabideekin. Era berean, lidergo taldeak funtsezkoak dira erabaki estrategikoak hartzeko, eta mugimenduaren arrakasta ere kideen imajinario, sormen eta gaitasun-sortzaileen araberakoa izango da. Beraz, baieztatu daiteke mugimenduen arrakasta-aukera handitzeko hoberena lidergo talde desberdinak sortzea izango litzatekeela, gaitasun eta ikuspuntu desberdinak batuko liratekeelako prozesu deliberatibo baten bitartez (Ganz, 2000).

Ildo beretik, eta kontuan izanik sortze-lidergo berritzaile baten eraikuntza, erabaki hartze prozesu kolektibo baten bitartez egin behar dela, liderrak soilik izango dira eraginkorrak deliberatzeko gaitasuna baldin badute. Kasuak kasu, mugimenduen antolakuntza estrokturek definitzen digute liderren askatasuna modu kolektiboan lan egiteko. Horiek horrela, analista klasikoek (Michels, 1962) eta garaikideek (Piven eta Cloward, 1977, Schwartz, 1981) mugimenduetako lidergoa autokratiko eta itsutua bihurtu daitekeela diote, bai estroktura oso burokratikoak, baita estroktura gabekoak izanda. Izan ere, alde batetik gizarte mugimendu burokratizatuek ohiko erabakiak hartzen dituzte, ez dituzte tendentzia berritzaileak begi onekin ikusten eta masa partaidetzak sortzen dituen ziurgabetasunak saihesten dituzte (Morris, 1984). Estroktura gabeko edo hierarkiatik aldentzen diren gizarte mugimenduek aldiz, lidergo autokratiko *ikusezin* batek harrapa ditzake, estrokturarik gabe funtzionatzeak kontu ematea zailtzen duelako (Freeman, 1972; Hanisch, 2001).

Hala ere, argi utzi behar da ez dagoela mugimendu guztientzako balio duen antolakuntza apropos unibertsalik, eta are gutxiago enpirikoki frogatu denik.

### 3.5 Populismoaren eta globalizazioaren aldagaiak

Amaitzeko, egungo gai-zerrendan dauden bi aldagai izan behar dira kontuan, ustez, egungo ikerketak ulertzeko eta norakoak ikusteko beharrezkoak direnak: populismoa eta globalizazioa. Lidergoaren eta gizarte mugimenduen ulerkera aldatu egin dute biek, horregatik, hurrengo lerroetan, hauen inguruan izan duten eragina azalduko dut.

Populismoaren teorizatzailerik garrantzitsuenak edo behintzat, azken urteotako transgresoreena Ernesto Laclau izan da. Laclauk horrela definitzen zuen populismoa edo “forma populista”: “herriak (gizartearen talde subalterno batean oinarrituriko gehiengo politiko bezala) eraikitako diskurtso baten bidez, esparru politiko berrantolatze gai dena da, dagoen erregimenaren edo establishment zaharraren kontra doana” (Laclau, 2005). Hori horrela, populismoak ez dauka eduki ideologiko zehatz edo praktikoekin loturirik, hau da, ez da zertan eskuin-ezker ardatzean ulertu behar. Ideologikoki zentzu oso desberdinak izan ditzakeen forma da. Honekin lotuta, komenigarria da aipatzea, populismoa, identitate tradizionalakiko hausturaren ondorioz, gizartean gertaera baten aldakuntza dagoenean ematen dela. Hori dela eta, jendea haserretzen da, ez baitago inor haien haserrea artikulatzeko eta jasotzeko gai.

Hiru oinarri identifikatzen dira populismoari dagokionez (Errejón, 2011): lehenengoa interpelazio diskurtsibo zabala; bigarrena espazio publikoaren dikotomizazio antagonikoa eta azkenik lidergo karismatikoa.

Lehenengoak, borondate kolektiboak eraikitzeari egingo lioke erreferentzia. Borondate kolektibo hauek, gizartearen parte zabal eta subalterno –sistemak aspaldi beraiekin kontatzen ez duena– baten nahiak (nahia sozialak, ekonomikoak, politikoak...) izango lirateke, talde oso heterogeneoa sortuko zutenak, baina nahimen kolektibo berdinarekin.

Bigarrenak, antagonismo eta agonismoaren arteko dikotomiaz dihardu (Mouffe, 1999); hau da, gizarte mugimenduek, gatazkaren beste partearekin edo parteekin daukaten harremanari buruz. Gizarte mugimenduaren ikuspuntutik, politikaren naturaltasun gatazkatsua kontuan izanda, antagonismoak lagun-etsai harremana proposatzen du “gu” eta “haien” artean. Honek suposatzen du, bi parteen artean ez litzatekeela inongo lotura komunik egongo. Honen aurrean, logika agonistikoaren alternatiba proposatzen du. Honen bitartez, “gu”-“haiek” harremana ez litzateke etsaitasunean oinarrituko, baizik

eta aurkakotasunean.. Orobat, etsaitasuna ezabatzea eta hura adostasun arrazionalagatik (“lehiakide” hutsak ez daitezela izan) ordezkatzeko ez da helburua izango; ezta antagonismoa lagun-etsai forman mantentzea. Etsaitasuna aurkakotasun modeloaren formatara eramatean dago gakoa. Hortaz, “gu” horren baitan, aurkaria ez da menperatu beharreko etsai moduan ikusiko, baizik eta existentzia legitimoko eta toleratu behar den aurkari bat bezala. Nahiz eta bere ideiei aurre egin, hauek defendatzeko duen eskubidea errespetatuko da.

Azkenik, ikerketarako funtsezkoa den aldagaia daukagu, lidergo karismatikoarena. Nahiz eta lehen aipatu izana, egokiagoa iruditzen zait kasu honetan bereizketa bat egitea. Populismoan, lidergoa aurreko elementuak antzetzeko, azaltzeko eta batzeko funtsezko elementua da, hori dela eta, forma populistaren aurpegia izango litzateke. Aipagarria da, liderraren eta ordezkatzeko duen taldearen arteko harremana. Izan ere, harreman bertikala dela jakinda, liderrak horizontaltasun bat mantendu eta lortu behar duelako. Halaber, argi geratu behar da erlazioa ordezkartzakoa dela eta ez suplantaziozkoa, liderrak talde subalernoaren eskaerak eta demandak etengabe batu behar dituelako, eta bere diskurtsoan txertatu, bestela liderra izateari utziko baitio. Liderrak, herriaren eta Estatuaren arteko batasuna berreraikitzeak aukera irudikatu behar du, botere erlazioak eta hegemonia politikoa eraldatuz. Talde subalernoaren gizabanakoei erreparatu, Ernesto Laclauk –Freuden teoriak oinarritzat hartuz– aztertu zuen bezala, aurrean aipatutako herriaren eta Estatuaren batasuna lortu nahi dute, nahi indibidualaren jatorrizko arrazoirak itzultzeko modua bezala: amaren sabela. Gizabanakoek liderrarenganazko duten faktore afektiboa mugimendu populisten nonahiko ezaugarria dela baieztatu dezakegu. Kontuan izan behar da, liderrak masak mobilizatzeko gaitasuna duela, ondorioz, esan dezakegu masak alor politikora salto egiten duenean, liderrarekiko identifikazio prozesu baten bidez egiten duela. Hortaz, Laclauk garatutako ideien arabera, hori lidergo demokratikoa izango litzateke.

Lidergoarekin lotuta, diskurtsoaren garrantziari erreparatu diogu. Lehenik eta behin, oso garrantzitsua da “herriari” hel egitea legitimitate aitortze moduan. Klase subalernoak ere subjektu politiko bezala eraiki behar dira, aipatutako partekatutako arazo eta eskaerak identifikatuz. Kulturari dagokionez, hau, gizarteak hegemonikoki duen zentzua edo sen ona aldatzeko eremua da. Ez daudelako posizio politiko zehatzik, hauek

etengabe eraiki eta aldatzen direlako. Hortaz, esparru flexiblea dela baieztatu dezakegu, ez baitago orden politiko naturalik. Amaitzeko, garrantzitsua da hitzei zentzu edo interpretazio-aldaketa bat ematea, hots, adierazle hutsak eta adierazle flotatzaileak eraikitzea. Izan ere, espazio ideologikoa lotu gabe dauden elementuez eginda dago, haien identitatea irekia da eta haien esanahia modu batean edo bestean karga metaforiko desberdinak onartu ditzake.

Bestalde, kontuan izan behar da ikerketa enklabe globalean kokatzen dela, bi mugimenduek ekintza kolektiboa bertan gauzatzen dutelako. Horregatik, komenigarria da ordenu globalari buruz apur bat aritzea, hau da, globalizazioaren aldagaia lantzea.

Orokorrean, globalizazioa aldagai oso labainkorra eta iheskorra da, definizio ugari daude eremu desberdinetan: arlo ekonomiko, globalean edota kulturean. Baina Saskia Sassenek guztien arteko sintesia egitea lortzen du, globalizazioaren soziologia aztertuz. Izan ere, nahiz eta prozesu transnazionalak globalizazio politikoa, ekonomikoa eta kulturala erronka teorikoak eta metodologiko berriak suposatu (Sassen, 2007), hurrengo elementuak identifikatzen ditu globalizazioaren oinarri bezala: (1) Estatuaren eta ekonomia berriaren zein sare digitalen arteko harremana; (2) lekuaren garrantziaren eta hiri globaletako ekintza sozialen berreskurapena; (3) nazioarteko migrazio-fluxuen osaera; (4) klase berri globalen eraketa eta politika globalean, aktore lokalen agerpena; eta (5) erakunde sozial berri globalen bermatzea. Horiek horrela, globalizazioa, alde batetik, prozesu eta instituzio globalen eraketarekin lotuta dago, baina era berean, maila lokalean, hau da, eremu nazionaletan aritzen diren, eta mugaz haraindiko sareen bitartez lotzen diren, prezesuek ere globalizazioaren parte izan daitezke. Hortaz, globala, neurri batean, lokalean datza ere

Posiblea da orain, maila globalean aritzen diren mugimenduen mobilizazio kolektibo moten bereizketa terminologikoa egitea (Maldonado, 2008):

- 1) Gizarte mugimendu transnazionalak. Herrialdeen arteko testuinguru supranazionalen aritzen diren mugimenduei egiten dio erreferentzia, haien helburuak eta eskakizunak maila inter-nazionalen egiten dituztenei hain zuzen. Mugimenduen arteko koordinazio internazionalerako antolakuntza estruktura

beharrezkoa izango da, sekzio desberdinak herrialde diferenteetan egongo direlako. Beraz, ez da espazio global bat. Horregatik, askotan gizarte mugimendu transnazionalen protesta marko instituzionaletara eramaten da, bai esparru nazionalen edo eskualde-mailan.

- 2) Mobilizazio kolektibo globala. Kontzeptu honen bitartez, herrialde eremu zehatzetatik haratago, globaltasunaren deslurralderatutako espazio berrian aritzen diren ekintza kolektiboko forma guztiei egiten zaie erreferentzia. Berdin dio lurralde eremua, baita mugimenduaren antolakuntza estruktura, mobilizazioaren globaltasunaren mendean jarrita baitaude. Globaltasun horrek protesta espazioaren eta helburuaren arteko harreman sinbolikoan oinarritzen da. Ulergarria da beraz, gizarte mugimendu nazional batek, bere herrialdean, protesta global bart aurrera eramatea –nazioarteko merkataritza-liberalizazioaren aurkako protesta adibidez–. Alabaina, ezin da ekintza kolektibo globalaren eta gizarte mugimendu globalen arteko adiera bakarreko harreman ezarri. Ildo beretik, egokiagoa da mobilizazio kolektibo global terminoa erabiltzea, mugimendu propioen antolakuntzarik zein iraunkortasunik gabeko protesta eta kanpaina kolektiboak barne hartzen direlako.
- 3) Gizarte mugimendu globala. Azkenik, mobilizazio kolektibo globala eta mugimendu transnazionalak albo batean utziz, gaur egun zabalduena eta oihartzun handiena izan duen mobilizazio mota agertzen zaigu. Ekintza kolektiboko modu desberdinak erabiltzen dituen orientazio globaleko mugimendua daukagu, globalizazio liberalari aurre egiteko edo behintzat erresistitzeko programa orokor baten inguruan antolatzen dena. Mugimendu antiglobalizazioa mugimendu, kanpaina eta protesta internazionalako ekintzen koalizio bezala funtzionatzen du. Honen antolakuntza sareen sarea bezalakoa da, non aktore desberdinen batasuna ematen da eta globalizazio alternatibo baten aldeko ekintzetan agertzen da. Era berean, ekintzak antolatuak edo antolatu gabekoak eta zehatzak edo orokorrak izan daitezke.

Bestalde, gizarte mugimenduek, gizartearen aldaketa estruktural baten beharra ikusteko gaitasuna duten heinean, ohikoena boterearekiko subalternoak diren pertsonez edo kolektiboez osatzea da. Honen inguruan sortzen dira liderrak, diskurtso landu batekin

eta ekintza zehatzekin, atsekabetasun kolektiboa bideratzeko gaitasuna duten pertsonak. Hau egungo egoera modernoan areagotu egin da, izan ere, gertaera sozialak ulertzeko zailtasunak eta sindikatuen jokaera aldaketaren ondorioz, errebindikazio indartsuko mugimenduen agerpena eman da, alderdi sistematik at (Deusdad Ayala, 2001). Globalizazioak bestalde, gizarte mugimenduetako lider karismatiko ikusgaien agerpena ahalbidetu du, besteak beste: Jose Bové Frantzian edo Subcomandante Marcos Mexikon. Hauek ekonomiaren mundializazioaren aurkako borrokaren buruak izan dira, baita gutxiengoen defentsarako protestetakoak.

#### 4.KASUAK

---

Aurreko lerroetan, hurrengoetan datorrena hobeto ulertzeko eta testuinguruan kokatzeko, beharrezko oinarri teorikoak azaldu ditugu. Izan ere, oraingoan gure lanaren funtsari ekingo diogu. Horretarako, bi gizarte mugimendu aurkeztu behar ditugu, alde batetik, Vía Campesina, eta bestetik, Emakumeen Mundu Martxa. Gizarte Mugimendu Berrien baitan kokatzen diren erakunde edo mugimenduak dira. Izan ere, lehen adierazi dugun bezala, bata mugimendu ekologistaren edo zehatzago, nekazal mugimenduaren baitan kokatzen da eta bestea, berriz, mugimendu feministan. Horiek horrela, atal honetan, eskuartean zer motatako mugimenduak ditugun ikusiko dugu.

Argi dago bi mugimenduek izaera globala batekin lan egiten dutela, beraz, mugimendu internazionalak dira, eta askok mugimendu altermundialistaren baitan kokatzen dituzte. Mugimendu hau Europan eta AEBen 60ko hamarkadan sortutako gizarte mugimendu alternatiboen bilakaeragatik eman zen, eta mugimenduen mugimendu bezala jaiou. Bertan sindikatuak, ezkerreko alderdi politikoak, talde ekologistak, bakezaleak eta feministak batu ziren, baita erakunde indigenistak, arrazismoaren kontrakoak eta eskubide zibilen defentsarako elkarteak. Horrela eratu zen beraz, sare deszentralizatu handi hori. 1990ko hamarkadarako, elkartasun internazionalako sareak egin ziren, herrialdez herrialde arazoak, eskakizunak eta errekurtsioak konpartituz. Tipologia berritzailea izan zen, hirurogei-hirurogeitahamarreko mugimendu internazionalistekin desberdintasunak zituena.

Izan ere, garai hartan, liberazio mugimenduekin elkartasuna aldarrikatzen zuten mugimenduak artikulatu ziren, Kuba, Aljeria edota Vietnam ardatz bezala hartuz. Hurrengo hamarkadan, elkartasuna Nikaraguako sandinistekin zabaldu zen. Baina 1990tik aurrera aldaketak hasi ziren, elementu berritzaileak agertu ziren eta 1996an EZLNko (Ejército Zapatista de Liberación Nacional) Subkomandante Markosek “gizatasunagatik eta neoliberalismoaren kontrako Topaketa Intergalaktikoa” deitu zuen. Bileraren helburua neoliberalismoaren kontrako borrokan kasu guztietan existitzen ziren aldagai komunak bilatzea izan zen, eta nola eraiki al ziren gizarte ororentzat alternatiba berriak.

Hona hemen elkartasun berriak edo munduko globalizazioa kapitalistaren kontrako erresistentziaren defendatzaileak. Horrela, gizarte indibidualen kontzeptuari aurre egiteko aukera zabaldu zen, helburu komunak eraikiz, sare berriak sortuz eta paradigma abangoardistak ezarriz. Hortaz, elkartasun hau herrialde desberdinetako gizarte mugimenduen, erakunde desberdinen eta alderdi politikoen arteko elkarkidetasuna da, kontinenteak aurkari edo etsai komun baten kontra batuz.

#### 4.1 Vía Campesina

Egoera honetan agertzen zaigu Vía Campesina, nazioarteko nekazarien sarea. Bertan mugimendu oso diferenteak batzen dira, besteak beste: Frantziako Nekazarien Konfederazioa, Brasileko lurrik gabeko landa langileen mugimendua edo Indiako nekazarien mugimendu zabalak. Erakunde, talde eta mugimendu hauek elkarri laguntzen diote, saioak elkarbanatzen dituzte eta orokorrean, politika neoliberalen kontra batera egiten dute, multinazionalen, hazien monopolioen, transgeniko-fabrikatzaileen eta lur-jabe handien kontra, hain zuzen. Elkarrenganako elkartasun honek, globalizazio kapitalistaren kontrako mugimendu indartsu, mobilizatzaile eta aktiboenetarikoa bihurtu du Vía Campesina. Bere web-orrian, horrela definitzen dute bere burua<sup>3</sup>:

“La Vía Campesina es un movimiento internacional que coordina organizaciones campesinas, pequeños y medianos productores, mujeres rurales, comunidades indígenas, gente sin tierra, jóvenes rurales y trabajadores agrícolas migrantes. Defendemos los intereses básicos de nuestros miembros. Somos un movimiento autónomo, plural, independiente, sin ninguna afiliación política, económica o de otro tipo.”

Mugimendua 1992an sortu izan zen, Zentro-Amerikako, Ipar-Amerikako eta Europako zenbait lider-nekazari Nikaraguan batu zirenean, Nekazari eta Abeltzainen Batasun Nazionaleko Kongresuan. Hartatik, Vía Campesinaren Lehengo Konferentzia, 1993ko maiatzean burutu zen Monsen, Belgikan. Bertan, Mundu Erakunde bezala eraiki zen, bere lehen jarraibide estrategikoak eta estruktura propioa definituz.

<sup>3</sup> Hemen ikus daiteke: <https://viacampesina.org/es/quienes-somos>



Nazioarteko Bigarren Konferentzia aldiz, Tlaxcalan, Mexikon izan zen, 1996an. 37 herrialde desberdinetako 70 erakunde inguru hurbildu ziren bertara, ekoizle txiki eta ertainen kezka nagusiei buruz hausnartzeko eta tematika desberdinak aztertzeko, hala nola: elikadura burujabetza, nekazaritzako erreforma, kredituak eta kanpo-zorra, teknologia, emakumeen partehartzea eta landa-garapena. Egun mugimendua 73 herrialdetan sakabanaturiko 164 erakundek osatzen dute, guztira, 200 milioi nekazari inguru ordezkatur.

Euskal Herriari begira, mugimenduaren lehengo idazkaritza operatiboa Bizkaiko EHNEko egoitzan eman zen, 1994an hain zuzen.

Horrela, Vía Campesinak, lehentasun batzuk ezarri zituen. Lehenik eta behin, mugimenduak helburu nagusi bezala barneko elkartasuna, batasuna eta elkarteen dibertsitatea garatzea dauka. Honek erraztuko baitu berdintasunean oinarrituriko harreman ekonomikoak, justizia soziala, lurraren babesa, elikadura burujabetza, nekazaritza-ekoizpen iraunkorra eta berdintasunezko ekoizpena.

Helburu hauek lortzeko beraz, Vía Campesina berak hurrengo lerro estrategiko hauek definitzen ditu:

1. Bere erakundearen artikulazioa eta indartzea.
2. Aldeaniztuneko instituzioetan, gobernuen erabaki-hartzetan eta botere zentroetan esku hartzeko aukera izatea, ekoizle txiki eta ertainengan eragina duten nekazaritza-politiken eta erabaki ekonomikoen norabidea aldatzeko.
3. Afera sozial, ekonomiko, politiko eta kulturaletan emakumeen partehartzea indartu.
4. Hurrengo gaien garrantzitsuen inguruan proposamenak formulatu: nekazaritzako erreforma, elikadura burujabetza, ekoizpena, merkataritza, ikerketa, baliabide genetikoak, biodibertsitatea, ingurumena eta generoa.

Hauek guztiak burura eramateko, erabakiak modu efizientean hartzea ahalbidetzen duen oinarritzko estruktura bat behar da. Hori dela eta, Vía Campesinaren erabaki-organorik altuena Nazioarteko Konferentzia da, lau urtetan behin 9 eskualdetako batean biltzen

dena. Bestalde, eskualdetako bulegoak daude, bertan ematen da mugimenduaren lan nagusia. Izan ere, bulegoetan eskualdeen baitan ematen diren harremanak eta taldeen, erakundeen, nekazarien... arteko artikulazio desberdinak gertatzen dira. Hauek koordinatzeko eta eskualdeen norakoak bideratzeko, Nazioarteko Koordinazio Batzordea dago eta honen baitan, Nazioarteko Idazkaritza Eraginkorra, honek Vía Campesinaren afera garrantzitsuenen ebazpenak eta erabakiak koordinatzen eta gauzatzen ditu.

Nazioarteko Koordinazio Batzordea eskualde bakoitzeko bi pertsonak osatzen dute (bata emakumea eta bestea gizona), haien eskualdetako ardatz-erakundeek aukeratzen dituztenak. Nazioarteko Idazkaritza, aldiz, 4 urtero aldatzen da, Nazioarteko Konferentzia lehen aipatu dugun moduan biltzen denean. Hasieran Belgikan kokatu zen (1993-1996), gero Hondurasen (1997-2004), jarraian Indonesian (2004-2013) eta azkenik, gaur egunera arte, Hararen, Zimbabwen.

Hau jakinda, Vía Campesina antolaturiko edo behintzat estrukturatutako mugimendua dela baieztatu genezake. Baina hala ere, hierarkizazioa ez da hain garbia. Egia da koordinaziorako eta komunikaziorako erakundeak existitzen direla, baina deszentralizazioa nabarmena da, batez ere mugimendua 9 eskualde desberdinetan oinarritzen delako. Haien burua masa mugimendutzat hartzen dute, legitimitatea maila nazional eta nazioarteko nekazal erakundeetatik lortuz.

Horiek horrela, Vía Campesinak ez dauka aurpegi zehatzik, ez lider definitu ezta ofizialik. Herrialde desberdinetako erakundeetako bozeramaile ezberdinek hartzen dute hitza, eta Vía Campesinaren Koordinatzaile Orokorren —4 urtez aldatzen dena baita ere— bidez ordezkatzen dira. Azken Koordinatzailea, Henry Saragih indonesiarra izan da, baina mugimenduaren lider nagusia izatetik nahiko urrun geratu dela esan dezakegu. Izan ere, ekintza eta jarraitzaile gehienak bere herrialdean kokatu direlako.

Bestalde, mugimenduak berak 2015ean ateratako bideo batean<sup>4</sup>, zenbait herrialdetako Vía Campesinako lidergoak identifikatu eta elkarrizketatzen dira:

---

<sup>4</sup> Hemen ikus daiteke: <https://tv.viacampesina.org/Somos-La-Via-Campesina?lang=es>

Lehenik eta behin, Elisabeth Mpfu zimbabwetarra agertzen zaigu, egungo mugimenduaren Koordinatzaile Orokorra. Honi egindako elkarrizketa batean<sup>5</sup> lidergoei buruz hurrengoa baieztatzen du: “Vía Campesinak emakumeen lidergoei ematen die lehentasuna. Vía Campesina dagoen herrialde gehienetan, liderrak emakumeak dira. Emakumeak politika propioak sortzearen alde daude. Emakumeen gaitasuna eraikitzen gaude erakundearen barruan, behetik gora”.

Bigarrenik, Carlos Marentes AEBko aktibista mexikarra elkarrizketatzen da. Honen aburuz, Vía Campesinaren indarra batasunean oinarritzen da, honi esker ekintza globalak errazago egiten baitira. Bestalde, Marentesi egindako beste elkarrizketa batean<sup>6</sup>, 60-70eko hamarkadetako eta egungo lidergoei buruzko hausnarketa txikia egiten du. Lehenik eta behin, desberdintasunak daudela onartzen du. Izan ere, lehen lidergo oso nabarmenak zeuden, besteak beste Cesar Chavez edo Martin Luther King. Baina gaur egun, ezaugarri horiek dituzten lidergoak ez dira eraiki. Jarraian, gizarte mugimenduetako lidergoak, erakunde eta talde zehatzetan ematen direla baieztatzen da. Hau da, liderrak jada ez direla pertsona zehatzak, komunitate edo gizarte bateko erakundeak baizik, pertsona talde bezala. Honekin batera, Marentesek arazoa batasunean dagoela adierazten du. Antzineko lidergoen masa-basea batuta zegoen, adibide moduan Washingtoneko Pobrean Martxa<sup>7</sup> aipatzen du. Bertan kolektibo eta komunitate desberdinetako liderrak eta militanteak topatu ziren: indiarak, beltzak, *chicanoak* (komunitate bakoitzeko liderrak: Martin Luther King, Reies López Tijerina eta Jorge Gonzalez). Hortaz, lidergoak agertzeko erraztasun handiagoa zegoela baieztatzen du Marentesek, batasunean errebindikazioak egiteko eta pertsona gehiagora heltzeko aukerak ugariagoak direlako.

Vía Campesinak egindako bideora bueltatuz, Miriam Talavera txiletarra eta Emakukume Nekazarien eta Indigenen Elkarte Nazionalako (ANAMURI<sup>8</sup>) presidentea

---

<sup>5</sup> Hemen ikus daiteke: <https://otherworldsarepossible.org/la-campesina-building-international-movement-food-and-seed-sovereignty>

<sup>6</sup> Hemen ikus daiteke: <https://crbb.tcu.edu/clips/most-effective-leader-10>

<sup>7</sup> Washingtoneko Pobrean Martxa edo “Poor’s People Campaign” 1967ko abenduan eman zen ekimena izan zen. 3000 pertsona inguru bildu ziren eta 6 astetan zehar Washingtonen egon ziren protestatzen. Eskaeren artean, justizia ekonomikoa eta gutxiengo etnikoentzat baldintza hobetoak zeuden. <http://www.blackpast.org/aah/poor-peoples-campaign-december-4-1967-june-19-1968>

<sup>8</sup> Txileko emakume nekazari eta indigenen garapen soziala, ekonomikoa, kulturala... bermatzeko sortutako elkarte da. Oinarri ideologikoen artean, berdintasuna, generoa, klase eta etnia bereizten dira. <http://www.anamuri.cl/>

da. Talavera Morentesekin bat dator eta batasunaren kontzeptuan sakontzen du, bere ustez, munduko nekazari guztiek gai eta arazo berdinak dituzte: lur metatzea, ur-eskubidea, elikadura burujabetza, klima aldaketa... Era berean, beste elkarrizketa batean<sup>9</sup> emakumeen garrantzia aldarrikatzen du eta liderrak izateko apustua egin behar dela dio.

Bestalde, maila internazionalen garrantzi handia izan duen pertsona, lehen aipatutako Henry Saragih indonesiarra izan da. Saragih, Serikat Petani<sup>10</sup> Indonesiako nekazarien erakundeko eta Vía Campesinako lider nagusietariko bat da<sup>11</sup>. Behetik hasitako nekazaria izan da Saragih eta gazte zenetik nekazal mugimenduetan sartuta ibili da, leku desberdinetara joaten gizarte mugimenduei buruzko esperientziak jasoz. Indonesiako Nekazarien Batasuna sortu zuen 1998an eta guztira 400.000 nekazari mobilizatzea lortu zuten<sup>12</sup>.

Baina, Vía Campesinarekin eta mugimendu ekologistarekin orokorrean lotuta dagoen pertsona, eta seguru aski mendebaldean ezagunenetarikoa, José Bové aktibista eta politikari frantsesa da. Gaztea izanda desobedientzia zibileko eta ekintza zuzeneko zenbait ekintza burutu zituen eta 1990an Nekazarien Konfederazioko<sup>13</sup> buruetako bat izan zen. 2003an sindikatua utzi zuen eta maila internazionalen aktibismora pasatu zen. Hemendik aurrera, Bovék aurrera eramandako ekintza guztiak ikuspuntu internazionaletik ulertu behar ditugu. Horrela, Vía Campesinaren elikadura burujabetzaren aldeko kanpaina burutu zuen eta honen enbaxadorea bihurtu da mendebaldeko herrialdeetan.

Bukatzeko, eta guregana hurbiltze arren, Paul Nicholson daukagu mugimenduaren erreferente gisa. Jaiotzez britainiarra, arestian esan bezala Nicholson nekazal mugimenduetako liderra, EHNE sindikatuko kidea eta Vía Campesinaren Nazioarteko

---

<sup>9</sup> Hemen ikus daiteke: [https://www.youtube.com/watch?v=EJHXoF\\_a3Q](https://www.youtube.com/watch?v=EJHXoF_a3Q)

<sup>10</sup> Indonesiako Nekazarien Batasuna (SPI). Bere oinarriak edo eskaerak: nekazal erreforma, nekazarien eskubideak, elikadura burujabetza, nekazaritza jasangarria eta neoliberalismoaren kontrako borroka.

<sup>11</sup> Hemen ikus daiteke: <https://www.theguardian.com/global-development/2013/jun/17/la-via-campesina-henry-saragih>

<sup>12</sup> Hemen ikus daiteke: [http://www.inmotionmagazine.com/global/h\\_saragih\\_int.html](http://www.inmotionmagazine.com/global/h_saragih_int.html)

<sup>13</sup> Confédération Paysanne (CC): 1987an sortua, aurrekoarekin partekatzen ditu oinarri eta helburuak.

Koordinazio Batzordeko kide fundatzaileetako bat izan da. Azken honen ordezkaria izan zen Europan eta egun erakundearen kidea da.

Nicholsonek mugimenduaren baitan zubi funtzioak dituela onartzen du, “ez dakit nik karismarik dudan, baina hizkuntzak lagundu nau zubiak lantzeko, eta horrek esan nahi du erreferente bihurtzen zarela jende askorentzako; ez soilik haien hizkuntza idiomatikoa hitz egiten duzulako, baizik eta baserritar hizkuntza hitz egiten duzulako”. Era berean, Vía Campesinako liderrak, herrialdeetako mugimendu eta erakunde edo elkarteetako liderrak dira, hau da, ez dago lider identifikagarririk soilik Vía Campesinarako lan egiten duena. Horrek ez du esan nahi, herrialdez herrialde existitzen diren liderrak ez dutela Vía Campesinari buruz hitz egingo edo ez dutela honen izenean adierazpenak egingo (mugimenduaren parte badira).

Ildo beretik, “espresio politiko denek, behar dute ahots argia eta horretarako pertsonak behar dira. Ahots hori txandakakoa izan daiteke, baina kolektiboak mobilizatzeko entzuteko eta koordinatzeko gaitasunak izan behar ditu,”. Hortaz, Nicholsonek pertsonalismoa baztertzen du eta bere burua lidergo tradizioaletik at ikusten du.

Halaber, antolakuntza egitura adostasunean oinarritzea, –“ez daude botaziorik, baizik eta aho bateko (*aclamación*) erabakiak, kontsentsuan oinarrituta”– lidergo bakarrak eraikitzeo aukera zailtzen du, mugimendua osatzen duten elkarte guztiek sintesi komun batera heltzeko beharrak, galtzaile-irabazle logika deuseztatzen duelako. Modu honetan ordea, zubi-lidergoak eraikitzeo aukera zabaltzen da, izan ere “asiarrekin, afrikarrekin... komunikatzeko eta bakoitzaren ikuspuntua konpartitzeko beharrezkoak dira, entzuteko ahalmena badute ibilbide komun baterako atea irekitzen da”.

Emakumeen paperari dagokionez eta hauen garrantzia lidergoaren zein mugimenduaren baitan, Nicholsonek berebiziko garrantzia dutela aitortzen du. Bere ustez, emakumeak “hurrengo direkzioan oraindik fundamentalagoa” izango dira, espazio politiko berrietan sartu dira eta gizonei feminismo-formakuntza tailerrak ematen dizkiete. Baina nahiz eta “lan ohiturak, prozesuak edo espazioak feminizatu” lidergoei erreparatuz, gutxi dira emakumezkoak.

Mugimendu internazionala izanda, Vía Campesinaren kasuan “lidergo internazionalak eta erregionalak ez diote bata besteari indarririk kentzen”, are gehiago, “Vía Campesinak, maila lokaleko erakundeak eta lidergoak bultzatzen, babesten eta indartzen ditu”.

Gizarte mugimenduen eta instituzioen arteko harremanari dagokionez, Paul Nicholsonnek alderdi bihurtzeko posibilitatea baztertzen du, “ez ditugu estrukturak sortuko instituzio internazionalekin harremanak edukitzeko, baina horrek ez du kentzen guk barruan formatzen ditugula gure lidergoak negoziatziora joateko”

Gainera, mugimenduen eta alderdien arteko lidergoen diferentziak argi ikusten ditu. Alde batetik, alderdietan eraikitzen diren lidergoak “bertikalak dira, hierarkikoak eta gehienetan disziplinatua”. Mugimenduetakoak aldiz, “askoz ere horizontalago eta gazteagoak dira, aniztasun gehiago dute baina sarritan, efikazia gutxiago”.

Populismoaren aferari buruz, alderdiek gizarte mugimenduen diskurtso eta espazioa bereganatu dutela baieztatzen du Nicholsonnek. Alderdi berriek mugimenduen gainbehera egoeraz aprobetxatu dira, hauek zeukaten boterea hartzeko.

#### 4.2 Emakumeen Mundu Martxa

Emakumeen Mundu Martxa jatorri etniko edo kultural desberdinetako eta ideologia, klase, adin eta sexu-joera anitzetako emakumeak eta emakume-taldeak osatzen dute, beraz, interseksionalitatearen printzipioan oinarritzen dela baieztatu dezakegu. Hastapenak 1995ean eman ziren, Quebec-eko emakume-mugimenduak martxa bat egin zuenean, “Ogiaren eta Larrosen Martxa” hain zuzen, hamar egunetan zehar, 15.000 pertsona mobilizatu zituenak. Hartatik, 2000. urtean, Dianne Matte-k<sup>14</sup> eta Lorraine Guay-k<sup>15</sup> sustatuta, martxa zabaltzea erabaki zuten. Martxa berria martxoak 8an hasi zen Ginebran, Suizan, eta urriak 17ko New Yorkeko manifestaldiarekin bukatu zen. Gertaera gogoangarria izan zen mobilizazioen historian, izan ere, 6.000 GKE baino gehiago partehartu zuten eta pertsona gehienak posta elektronikoari esker gerturatu ziren (Larrondo, 2005). Honekin emakume-talde gehienak batzea lortu zen, eta era berean, mugimendua herrialde desberdinetara zabaltzea ere. Horrela, zazpi hilabetetan,

<sup>14</sup> Emakumeen Mundu Martxako Koordinatzailea – Quebeceko Emakumeen Federazioa (Fédération des Femmes du Québec – FFQ).

<sup>15</sup> Emakumeen Mundu Martxako Militantea – Quebeceko Emakumeen Federazioa (Fédération des Femmes du Québec – FFQ).

5.084.546 sinadura lortu ziren erabaki politikoak eta ekonomikoak hartzen zituzten arduradunei nazioarte mailan aldaketa bat eskatzeko, pobreziarekin amaitzeko eta emakumeek pairatzen duten edonolako indarkeria gelditzeko (Matte & Guay, 2001).

Aurrera jarraituz, 2005ean beste ekintza garrantzitsu bat eman zen, aurreko data berdinak mantenduz, errebindikazio mota desberdinak egin ziren munduko herrialde askotan eta hauetatik ondorioztatu zen Emakumeen Mundu Gutuna<sup>16</sup>. Bertan, EMMaren aurkezpena eta mugimenduaren definizioa ematen da, gainera, lau balio hartzen dira aldarrikapenen oinarri gisa: berdintasuna, askatasuna, elkartasuna eta justizia.

Honetaz gain, 2000tik 2005era emandako aldaketak azpimarratzen dira. Izan ere, bost urte horietan, Martxa, kanpaina zehatz bat izatetik, nazioarteko mugimendu permanentea izatera pasatu zen. Horrela, gakoetako bat maila dikotomikoen jokoak izan zen, maila lokalean zein globalean koordinazioa beharrezkoa baitzen. Garrantzitsua da hortaz, maila lokaletik globalera doala, baino modu berean, maila globaletik, lokalera. Hari beretik, 2006an Nazioarteko Idazkaritza Quebecetik São Paolora mugitu zuten eta aldi berean mugimenduak bere helburuak eguneratu zituen<sup>17</sup>, hurrengoak definituz:

1. Emakume eta erakunde guztien artean elkartasuneko mugimendua indartzea eta mantentzea.
2. Gizon eta emakumeen arteko, emakumeen arteko eta herrialdeen arteko berdintasuna eta justizia sustatzea.
3. Hezkuntza eredu berri bat eraikitzen eta indartzen jarraitu.
4. Emakumeen mugimenduen aldarrikapenak eta alternatibak praktikara eraman, maila lokalean, erregionalean, nazionalean eta internazionalen.
5. Gobernuengan zein instituzioengan presio politikoa eragin munduko emakumeen bizi baldintzak hobetzeko, gatazken ebazpenerako alternatiba baketsuak proposatuz, okupazioak, blokeoak eta gudak saihestuz.
6. Nazioarteko instituzio finantzarioak salatu eta errefusatu (NDF, NATO, Munduko Merkataritza Antolakundea, MB...), hauek baitira emakumeak txirotzen eta baztertzen dituztenak.

---

<sup>16</sup> Hemen ikus daiteke:

[http://pmayobre.webs.uvigo.es/pdf/carta\\_mundial\\_de\\_las\\_mujeres\\_para\\_la\\_humanidad.pdf](http://pmayobre.webs.uvigo.es/pdf/carta_mundial_de_las_mujeres_para_la_humanidad.pdf)

<sup>17</sup> Hemen ikus daiteke:

<https://marchemondialesdesfemmes2015.files.wordpress.com/2015/01/2006mmfobjectifs.pdf>

7. Beste mugimenduak, alderdiak eta gizartea orokorrean bultzatzea emakumeen bizi kalitatea, posizioa, baldintzak, etab. hobetzeko borrokatzera.
8. Errekurtsoen eta naturaren ustiapena ahalbidetzen duten erakunde, gobernu, instituzio eta korporazioen kontra proposamen eta ekintza feministak aurrera eramatea. Burujabetzaren alde borrokatzea.

Hurrengo urteetan zenbait ekimen burutu ziren herrialde diferenteetan, eta 2010ean martxa berri bat antolatu zen, data berdinak errespetatuz. Gainera, Ekintza Internazionala Hego Kivun, Kongoko Errepublika Demokratikoan antolatu zen, gerra egoeran dauden lurraldeetako emakumeekin elkartasunean eta hauek papera indartzeko gatazken konponketan.

2015ean azken nazioarteko ekintza indartsua eraman zen burura. Martxa Kurdistanen hasi zen, Turkiako Estatuan, martxoak 8an eta itxiera ekitaldia Lisboan egin zen, urriak 17an. Martxa 12 herrialdeetatik pasatu zen eta ekintzen ikur komuna haziak izan ziren, elikadura-burujabetzaren aldeko borroka gogoan.

EMMak nazioarteko ekintzak antolatzeko, talde eta erakundeen arteko loturak lortzeko eta maila internazionalan zein lokalean estrategia bateratuak mantentzeko, estruktura, egitura edo antolakuntza organo batzuk ditu. Hauek bereziki 2007-2010eko Plan Estrategikoan<sup>18</sup> landu eta aktibatu ziren. Bertan, esaten den moduan, egituraketa sinplea eta demokratikoa da, eta emakumeen protagonismoan oinarritzen da. Gainera, herrialdeen erantzukizuna, erabaki-hartzea, onarpena, errespetua eta dibertsitatearen balioa dira erabilitako printzipio nagusiak, jakinda emakume desberdinen errealitatea, ekintza-estrategia eta autonomia maila diferentea dela, bai maila globalean baita lokalean ere.

Nolanahi ere, erakundearen antolakuntza-egitura hurrengoa da:

- Nazioarteko Koordinakundea eta Idazkaritza: 2007ra arte, Kanadaren esku egon zena. 2006ko Limako asanblada ostean eta zenbait kandidatura aurkeztu eta gero, Brasil hautatu zen Idazkaritzaren egoitz gisa, eta Miriam Nobre koordinatzaile bezala.

---

<sup>18</sup> Hemen ikus daiteke: <http://www.nodo50.org/xarxafeministapv/?Plan-estrategico-de-la-Marcha,779>



- Nazioarteko Batzordea: Koordinazio Kontinental bakoitzak hautatutako ordezkariak osatuta.
- Koordinazio Kontinentalak: Koordinazio Nazional bakoitzeko bi delegatuek osatuta.
- Koordinazio Nazionalak: Martxara atxikitutako talde guztiek osatuta.
- Asanblada Mundialak edo Topaketa Internazionalak: bi urtean behin egiten dira eta orain arte, guztira hamar egin dira, haien artean: Montrealen, Indian, Kigalin (Ruandan), Liman, Vigon, Quezon Cityn (Filipinaken), São Paolon edota Maputon (Mozanbiken).
- Lan taldeak: biolentzia, pobrezia, bakea eta desmilitarizazioa, LGTBQ kolektiboaren eskubideak, alternatiba ekonomikoak, aliantzak eta elikadura burujabetza.

Emakumeen Mundu Martxaren beste lan garrantzitsua eta aitortua, hasieratik Munduko Foro Sozialetan (MFS) parte hartzea izan da, baita eskualdeko foroetan edo foro tematiko desberdinetan (Europako Gizarte Funtsan adibidez). MFSko Nazioarteko Batzordearen parte dira eta Mugimendu Sozialerako Batzarraren barruan daude. Horrela, bermatzen dute foro guztietan feminismoa eta honek eskaintzen dituen alternatibak, erresistentziak eta jomugak kontuan izatea, hau da, emakumeen aldeko eta genero-desberdintasunen kontrako borroka agendaren parte izatea. Era berean, mugimendu desberdinekin lan egiten dute batera, elkar aberastuz eta elkartasun sareak sortuz, adibidez Via Campesinarekin. Azken honekin, Nairobiko 2007ko MFSa antolatuta zuten eta Mugimendu Sozialen zenbait mintegi prestatu zituzten. Horiek horrela, mugimenduen arteko loturak indartzea dute helburu taktiko bezala, asanbladetan erabakitako beste mugimenduen ekintzetan parte-hartzearen bitartez.

Gurera hurbilduz, Euskal Herrian oso bizkor hazi zela baieztatu dezakegu (nondik atera dugu hori). Estatu Espainolean, lau dira EMMko koordinatzaileak duten autonomi erkidegoak: Galizia, EAE, Katalunia, Valentzia eta Valladolid. EAEn martxa oso bizkor hasi zen, horrela azaltzen dute beraien web-orrian: “2003tik aurrera Euskal Herrian helburu zehatz bezain anbiziotsua jarri zen, Mundu Gutuna oinarri bezala hartuta, eztabaida irekia egitea proposatu zen, herriz herri, hartara, “Euskal Herriko Emakumeen Eskubide Gutuna” sortzeko”. Haien esanetan, arrakasta itzela izan zen, baina 2010etik

aurrera mugimenduaren indarra jaitsi egin dela aitortzen dute, hots, mobilizazio eta jarraitzaile kopuru gutxiago egon mugitu ziren, baina plataformak oraindik indarrean dirau. Egun, errebindikazioak eremu anitzetarago zabaldu dira, egoera prekarioan dauden pertsonen defentsa edo langileen eskubideen aldeko borroka dira besteak beste, egungo esparru berrietako batzuk.

Ildo beretik, Euskal Herriko EMMko koordinazio taldeak zenbait ekintza eremu identifikatu zituen 2015ean. Lehenik eta behin, sistema arteko indarkeriak identifikatzen dira: murrizketak, arrazakeria, matxismoa, heterosexismoa, helduen nagusitza, eurozentrismoa, esklaboen salerosketa, kolonialismoa eta inperialismoa. Bigarrenik, merkatuaren logika neoliberalaren ordeztu, bizitzaren iraunkortasuna ikusi zuten aldarrikapen klabe bezala. Gorputzei eta sexualitatei dagokionez, gorputzen jabetza banakoari dagokiola argi azaldu zuten, beraz, bakoitzaren askatasuna eta sexualitatea (“gorputz disidenteena”<sup>19</sup> baita ere) libre bizitzeko hautua errebindikatu zuten. Halaber, sarean lan egiteko eta aniztasuna kudeatzeko beharra ere argi ikusi zuten, hasieratik emandako batasunak eta elkartasunak mantentzeko premia hain zuten.

Itziar Gandariasekin elkarrizketatu ondoren, hurrengo adierazpenak azpimarra ditzakegu. Lehenik eta behin, Itziarrek Emakumeen Mundu Martxaren baitan zubi funtzioak dituela onartzen du: “nola bizi, eta nola sentitzen dugu bakoitzak feminismoa oso desberdina da, emakume etorkin batek edo hemengo batek ikuspuntu desberdinak ditu. Orduan, zubiak egitea oso garrantzitsua da”. Hizkuntzaz haratago doan itzulpenaz ari da Itziar, “desberdintasunen itzulpenaz”<sup>20</sup>, hain zuten.

Gandarias 2011 eta 2013 urteen artean hasi zen era progresiboan militatzen, nahiz eta aldeztu aurretik, graduaz zehar talde eta asanblada mistoetan parte hartu. Militante moduan ibilbide historiko laburra duela onartu ondoren, ez ditu Euskal Herri mailan lidergo pertsonal zehatzak ikusten, behar bada, “taldeak egon dira, lehenengoz igual Emakumeen Asanblada eta Bilgune Feminista, hor bai igual urte batzuk, Miren Aranguren Bilgunekoa izan zen aurpegi bat, pixka bat jendeak erreferente gisa hartu

---

<sup>19</sup> Horrela izendatzen dituzte sistemak baztertzen dituen gorputzak. Dossierrean adibide gisa hurrengoak jartzen dituzte: bollera gorputzak, transak, arrazak markatutakoak, aniztasun funtzionalekoak...

<sup>20</sup> Terminoa Boaventura de Sousa Santosek landu izan du. Itziarrek terminoaren inportantzia azpimarratzen du: “Ez da bakarrik itzultzea, baizik eta nola uler gaitzeken bilatzea”.

zuena baina ustez, ez dena lider handia izan”. Horrela, lidergoa EMMaren baitan taldeetan ikusten du, egia da talde horiek aldatuz joan direla, hau da, batzuk indarra galdu dute eta beste batzuk ordea, irabazi.

Bestalde, maila globalean aurpegi ezagunak daudela baieztatzen du Itziarrek. Alde batetik, EMMko Nazioarteko Idazkaritza sei urtez Brasilen egon zenean (2006-2012), Nalú Faria eta Miriam Nobre, biak ofizialki EMMko koordinatzaileak, nabarmendu ziren lider bezala; hala ere, “liderrak izan ziren Latinoamerikako herri-mugimendu popularretatik ibiliak zirelako, hau da, oso gertutik bizi izan dituzte herri-mugimenduak, eta panorama politiko oso egokia zuten haien diskurtsoa zabaltzeko, horrela, Nalú Fariak eta Miriam Nobrek mugimenduari zilegitasuna eta onarpena aitortzea lortu zuten Latinoamerikako herrialde askotan”. Egungo egoerari dagokionez, Itziarrek Graça Samo mozanbikearraren lidergoa aipatzen du. Graça Samo EMMko Idazkaritzako koordinatzailea da, “GKE handi baten zuzendaria izan da eta emakumeen eskubideen defentsan aritutakoa”. Hiru ezaugarri azpimarratzen ditu Itziarrek Graça lider bezala identifikatzeko: hurbiltasuna, indar diskurtsiboa eta entzuteko gaitasuna. Honekin guztiarekin, Graça Samo emakume afrikarren, latinoen eta europarren erreferente politiko bihurtu da.

Gizarte mugimenduen eta instituzioen arteko harremanari erreparatuz, Itziarrek independentzia eta autonomia maila bat mantentzearen alde dago. Gizarte mugimendu batek, mugimendu izaten jarraitu nahi duen heinean, instituzioek ematen ez duten askatasuna eta likidotasuna behar du. Horiek horrela, instituzioetan eta erabaki politikoetan zein ekonomikoetan feminismoa presente egon behar dela uste du, ez soilik gauza hutsaletan, horrek despolitizazioa besterik ez duelako ekartzen. Era berean, alderdiekin antzeko jarrera azaltzen du EMMak: “alderdiekin erabaki zen haiek ez egotea. Batzuetan bai etorri dira asanbladetara baina maila pertsonalean, ez alderdi bateko erreferente gisa”. Hala ere, batez ere alderdi ezkertiarrekin, harreman ona mantentzen dutela aitortzen du.

Lider karismatikoei eta populismoari buruz, Latinoamerikako eta Euskal Herriko tradizioen alderaketa bat egin ondoren, Itziarrek karismaren garrantzia azpimarratzen du

mugimenduaren eta pertsonen aktibaziorako motor bezala, funtsezko papera duela indar-emaile moduan.

## 5. ONDORIOAK

---

Emakumeen Mundu Martxan eta Vía Campesinan emandako lidergoak maila lokalean zein globalean eman dira, baina bakoitzak elementu diferenteak ditu eta modu ezberdinean eraiki dira.

Bi mugimenduetan eman diren lidergoak lidergo tradizioaletatik oso aldenduta daude. Hau da, mugimenduen burua ez zaio antolatzeko, erabakitzeko eta mobilizatzeko gaitasuna duen pertsona bakar bati egokitzen. Izan ere, lidergoa bi kasuetan kolektiboa da. Honek esan nahi du, lidergoak mugimenduak osatzen dituzten erakundeetan ematen direla, hots, herrialdeetako erakundeak dira EMMan eta Vía Campesinan liderrak eta lidergoak sortzen dituztenak. Erakunde-lider hauek mugimenduen erabakietan eragina izan dezakete, mobilizazio-gaitasun handia daukatelako eta legitimitatea aitortzen zaielako mugimenduaren baitan. Bi kasuetan, Brasilen hasitako Munduko Foro Sozialaren ondorioz, 2000. urtetik herrialde honen garrantzia nabaria izan da erakunde-liderren osaketan. Hala ere, aipagarria da Latinoamerika osoan emandako eboluzioa eta nekazal mugimenduan, zein mugimendu feministan erakutsitako abangoardia.

Horiek horrela, mugimenduetako erakunde-liderretatik ez dira lider nagusirik azaltzen, hau da, ez dira erakundearen izenean hitz egingo duten pertsonarik eraikitzen. Baina era berean, azpimarragarria da zubi-liderren irudia, lidergo mota hau bi kasuetan gehien ematen dena baita. Zubi-liderrek funtsezko papera betetzen dute, erakunde, buruzagi eta militanteen arteko harremanak eraikitzeko beharrezkoak baitira. Kapital sozial, kultural... handiko pertsonak izan ohi dira, hizkuntza, oratoria eta bestelako gaitasunen bitartez, beste herrialdeetako erakunde zein delegazioekin loturak sortzeko ahalmena dutenak.

Bestalde, populismoaren aldagaiari dagokionez, eragile nabarmena dela adierazi dezakegu. Alde batetik, populismoaren ondorioz, alderdi politiko berriek gizarte mugimenduen baitan sortutako diskurtsoa bereganatu dute. Ondorioz, mugimenduak ahuldu diren heinean, alderdi sortuberriak indartu dira. Bestalde, populismoa lidergo karismatikoa lotuta dagoen aldagaia da, eta lanean zehar ikusi dugun moduan karismak oinarritzeko funtzioa betetzen du gizarte mugimenduen hedapenean. Hala ere, Vía Campesinan, zein EMMan ez dira populismoaren ezaugarriak modu nabarmenean

ikusten, eta argi dago ez dagoela lider populistarik, bai ordea, karisma bidez mugimendua zabaltzen dutenak. Honekin guztiarekin esan daiteke, populismoa ez dela mugimenduetan alderdi sortuberrietan bezain nabarmen ikusten .

Oro har, Vía Campesinan emakumeen eginkizuna handitzen joan da, erantzukizun handiagoak hartuz, erabaki espazio zabalago eta trszendentalagoak lortuz, eta lidergoak aitortuz. Horrela, herrialdeak herrialde, emakumeen lidergoa handitu egin da, bai mugimendu osoari dagokionez, baita mugimendua osatzen duten erakundeei dagokionez. Izan ere, feminismoa oinarritzko zutabe bezala ikusten da eta erakundearen baitan pedagogia eginez, maila indibidualean zein kolektiboan errotu egin da.

EMMan jakina, eman diren lidergoak (genero sistema binariotik irten gabe) emakumezkoak izan dira. Bai maila lokalean zein globalean, abangoardia emakumeena izan da eta hauek izan dira lidergo posizioak hartu dituztenak.

Lidergoen eraketari erreparatuz, beharrezkoa da antolakuntza estrukturetan geldialdi bat egitea. Izan ere, antzekotasun handiak daude bi mugimenduen artean. Arestian adierazi den moduan, biak asanbladetan batzen dira, bai maila internazionalen, baita maila lokalean ere. Horiek horrela, aipagarria da Vía Campesinan erabakiak guztien adostasunez hartzen direla, eta EMMan ordea, gehiengo erlatiboaz eta gehiengo osoz. Bi kasuetan adostasuna beharrezkoa dela baieztatu daiteke. Honek, zubi-liderren agerpena errazten du. Izan ere, antolakuntza lokaletik-globaleranzko norabidea izateak –non komunikazioa funtsezko elementua bihurtzen da– , eta elkarteen artean gai komunetara heltzeko gaitasunak eta erraztasunak lortzea zubi-liderren betekizuna da.

Honekin guztiarekin, EMMan eta Vía Campesinan lidergo mota berdintsuak eman direla adierazi daiteke. Izan ere, bi kasuetan zubi-liderren agerpena eztabaidaezina da. Gainera, maila erregional zein globalean agertutako liderrak transformazionalak izan dira. Oro har, gizarte mugimendu demokratikoetan gertatzen den moduan, erabaki politikoak gauzatzen dituzten liderrek, diziplina mantentzeaz eta administrazioaz arduratzeaz gain –lidergo transakzionalak bezala–, estimulu intelektualak eta itxaropena komunikatzen dute –lidergo transformazionalak bezala–.

## BIBLIOGRAFIA

---

- Aminzade, R. (2001). *Silence and voice in the study of contentious politics*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Arias, M. M. (2008). La globalización de los movimientos sociales y el orden liberal: Acción política, resistencia cívica, democracia. *Revista Española De Investigaciones Sociológicas*, 2008. Zk 124.
- Barker, C.; Johnson, A.; eta Lavalette, M. (2001). *Leadership and social movements*. Manchester: Manchester University Press.
- Bennis, W. G., & Nanus, B. (2001). *Líderes: Estrategias para un liderazgo eficaz*. Bartzelona: Paidós.
- Bourdieu, P. (1981). *La représentation politique. Actes de la recherche en sciences sociales*. Zk.36-37, Otsaila-Martxoa, 3-24.
- Bourdieu, P.; García, I. A.; eta Bernuz, B. M. J. (2000). *Poder, derecho y clases sociales*. Bilbo: Desclée de Brouwer.
- Brinton, C. (1965). *The anatomy of revolution*. New York: Vintage Books.
- Calise, M. (2000). *Il partito personale*. Roma: Laterza.
- Cardona, P. (2000). *Liderazgo relacional. Ética en el liderazgo Mintegiko Txostenean*. IESE, Bartzelona.
- Della, P. D.; eta Lorenzo, M. (2005). Global-Net for Global Movements? A Network of Networks for a Movement of Movements. *Journal of Public Policy*, 25, Zk. 1, 165-190.
- Deusdad, A. M. B.; Giner, S.; eta Bartzelonako Unibertsitatea.(2001). *El Carisma político en la teoría sociológica*. Bartzelona.
- Diani, M. (1992). The Concept of Social Movement. *The Sociological Review*, 40, Zk. 1, 1-25.
- Errejón, I. (2011). *La construcción discursiva de identidades populares*. *Viento sur*, Zk. 114, 75-85. [http://cdn.vientosur.info/Vscompletos/vs\\_0114.pdf](http://cdn.vientosur.info/Vscompletos/vs_0114.pdf) web-orritik berreskuratua.
- Flacks, R. (1973). *Youth and social change*. Chicago: Markham Pub. Co.
- Fondevila, G. J. F.; eta Olmo, A. J. L. (2013). *El trabajo de fin de grado en ciencias sociales y jurídicas: Guía metodológica*. Madril: Ediciones Internacionales Universitarias.

- Freeman, J. (1972). The tyranny of structurelessness. *Berkeley Journal of Sociology*, 1972-73.
- Ganz, M. (2000). Resources and Resourcefulness: Strategic Capacity in the Unionization of California Agriculture, 1959-1966. *American Journal of Sociology*, Zk. 4, 1003-1062.
- Gitlin, T.; eta Gitlin, T. (1980). *The whole world is watching: Mass media in the making & unmaking of the new left*. Berkeley: University of California Press.
- Goldstone, J. A. (2001). Toward a fourth generation of revolutionary theory. *Annual Review of Political Science*, Zk. 4, 139-187.
- Hart, R. P. (1994). *Seducing America: How television charms the modern voter*. New York: Oxford University Press. (Itzulpena nik neuk egin).
- Jones, K. B. (1993). *Compassionate authority: Democracy and the representation of women*. New York: Routledge.
- Laclau, E. (2005). *La razón populista*. México D.F: Fondo de Cultura Económica.
- Larrondo, A. (2005). La Red al servicio de las mujeres. Aproximación a la relación mujer y medios de comunicación en Internet. *Estudios sobre el mensaje periodístico*, Zk. 11, 375-392.
- Mansbridge, J. J.; eta Morris, A. D. (2001). *Oppositional consciousness: The subjective roots of social protest*. Chicago: University of Chicago Press.
- Mazzoleni, G. (2010). *La comunicación política*. Madril: Alianza Editorial Sa.
- McAdam, D. (2007). *Political process and the development of black insurgency, 1930-1970*. Chicago: University. of Chicago Press.
- McCarthy, J. D.; eta Zald, M. N. (1977). Resource Mobilization and Social Movements: A Partial Theory. *American Journal of Sociology*, 82, Zk.6, 1212-1241.
- Melucci, A. (2010). *Acción colectiva, vida cotidiana y democracia*. Mexiko: Colegio de México.
- Melucci, A. (1989). *Sistema politico, partiti e movimenti sociali*. Milan: Feltrinelli.
- Michels, R. (1962). *Political parties: A sociological study of the oligarchical tendencies of modern democracy*. New York: Collier.
- Morris, A. D. (1986). *The origins of the civil rights movement: Black communities organizing for change*.
- Morris, A. D.; eta Staggenborg, S. (2004). Leadership in social movements. *The Blackwell Companion to Social Movements*, 171-196.



- Mouchon, J. (1989). *L'Information télévisée: Modèles descriptifs et stratégies de formation*. Lille: CERTEIC.
- Mouffe, C. (1999). *El retorno de lo político: Comunidad, Ciudadanía, Pluralismo y Democracia radical*. Barcelona: Paidós.
- Nanus, B. (1992). *Visionary leadership: Creating a compelling sense of direction for your organization*. San Francisco: Jossey-Bass.
- Natera-Peral. A. (2001). *El liderazgo político en la sociedad democrática*. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales.
- Natera-Peral. A. (2004). *Sobre el concepto y el estudio del liderazgo político: Una propuesta de síntesis*. *Psicología Política, Zk. 29, 7-29*. <http://www.uv.es/garzon/psicologia%20politica/N29-1.pdf> web-orririk berreskuratua.
- Northouse, P. G. (2001). *Leadership: [Hauptbd.,2]*. Thousand Oaks: Sage.
- Oberschall, A. R. (1973). *Social conflict and social movements*. Englewood Cliff: Prentice-Hall.
- Piven, F. F.; eta Cloward, R. A. (1977). *Poor people's movements: Why they succeed, how they fail*. New York: Pantheon Books.
- Rejai, M.; eta Phillips, K. (1988). *Loyalist and revolutionaries: Political leaders compared*. New York: Praeger.
- Robnett, B. (1997). *How long? How long?: African-American women in the struggle for civil rights*. New York: Oxford University Press. (Itzulpena nik neuk egina).
- Rubio, A. (2004). *Perspectivas teóricas en el estudio de los movimientos sociales*. José Ortega y Gasset. Fundazioa.
- Sassen, S.; eta Rodil, M. V. (2012). *Una sociología de la globalización*. Buenos Aires: Katz.
- Schwartz, M.; Rosenthal, N.; eta Schwartz, L. (1981). Leader-Member Conflict in Protest Organizations: The Case of the Southern Farmers' Alliance. *Social Problems, 29, Zk. 1, 22-36*.
- Seoane, J. (2000). *Resistencias mundiales: De Seattle a Porto Alegre*. CLACSO.
- Staggenborg, S. (1994). *The Pro-choice movement: Organization and activism in the abortion conflict*. New York: Oxford University Press.
- Stodgill, R. M. (1974). *Handbook of leadership: A survey of theory and research*. New York: London.

- Tannenbaum, R.; Weschler, I. R.; eta Massarik, F. (1961). *Leadership and organizations: A behavioral science approach*. New York: McGraw-Hill. (Itzulpena nik neuk egina).
- Tarrow, S. (1995). *Power in movement: Social movements, collective action and politics*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Taylor, V. (1999). Gender and social movements: gender processes in women's self-help movements. *Sage Family Studies Abstracts*, 21, Zk. 4.
- Tilly, C. (1979). *From mobilization to revolution*. Reading, Mass: Assison-Wesley. (Itzulpena nik neuk egina).
- Tintoré, E. M. (2003). El liderazgo político en la antigüedad clásica. *Revista De Estudios Políticos (Madril)*, Zk. 121, 2003.
- Touraine, A. (1981). *The voice and the eye: An analysis of social movements*. Cambridge: Cambridge University.
- Tovar, (2004). Apuntes sobre la categoría «liderazgo» aplicada a las teorías de los movimientos sociales. *Debates En Sociología*, 0, Zk. 29, 86-110.
- Tuchman, G. (1980). *Making news: A study in the construction of reality*. New York: Free Press.
- Turner, R. H.; eta Killian, L. M. (1972). *Collective behavior*. Englewood Cliffs: Prentice-Hall. (Itzulpena nik neuk egina).
- Valencia, J. (2005). *Psikologia Politikorako sarrera*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Veltmeyer, H., & Petras, J. (February 01, 2002). The Social Dynamics of Brazil's Rural Landless Workers' Movement: Ten Hypotheses on Successful Leadership. *Canadian Review of Sociology/revue Canadienne De Sociologie*, 39, 1, 79-96.
- Weber, M. (1922). *Economía y sociedad: Esbozo de sociología comprensiva*. Mexiko: Fondo de Cultura Económica. (Itzulpena nik neuk egina)
- Yin, R. K. (2003). *Case Study Research: Design and Methods*. Thousand Oaks, Kalifornia: Sage Publications.

## WEBGUNEAK

---

- Anamuri. (Online). Kontsulta data: 2017-06-14. <http://www.anamuri.cl/>
- Chile Rural: Entrevista a Miriam Talavera, presidenta de ANAMURI. Youtube. (Online). Kontsulta data: 2017-06-20. [https://www.youtube.com/watch?v=EJHXoF\\_a3Q](https://www.youtube.com/watch?v=EJHXoF_a3Q)
- Civil rights in black and Brown, oral history Project. Most effective leader. (Online). Kontsulta data: 2017-06-18. <https://crbb.tcu.edu/clips/most-effective-leader-10>
- EHNE. Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna. (Online). Kontsulta data: 2017-06-19. <http://www.ehne.eus/index.php?lang=es>
- Emakumeen Mundu Martxa. (Online). Kontsulta data: 2017-06-28. <http://blogak.goiena.eus/ehemm/zer-da-emakumeen-mundu-martxa>
- Feminismos, Géneros e Identidades. (Online). Kontsulta data: 2017-06-22. [http://pmayobre.webs.uvigo.es/pdf/carta\\_mundial\\_de\\_las\\_mujeres\\_para\\_la\\_humanidad.pdf](http://pmayobre.webs.uvigo.es/pdf/carta_mundial_de_las_mujeres_para_la_humanidad.pdf)
- Grup de dones de la marxa mundial València. (Online). Kontsulta data: 2017-07-11. <http://www.nodo50.org/xarxafeministapv/?Plan-estrategico-de-la-Marcha,779>
- Inmotion magazine. (Online). Kontsulta data: 2017-06-18. [http://www.inmotionmagazine.com/global/h\\_saragih\\_int.html](http://www.inmotionmagazine.com/global/h_saragih_int.html)
- La Vía Campesina TV. (Online). Kontsulta data: 2017-06-14. <https://tv.viacampesina.org/Somos-La-Via-Campesina?lang=es>
- Marche Mondiale des Femmes. (Online). Kontsulta data: 2017-07-12. [https://marchemondialesdesfemmes2015.files.wordpress.com/2015/01/2006mmfobjec\\_tifs.pdf](https://marchemondialesdesfemmes2015.files.wordpress.com/2015/01/2006mmfobjec_tifs.pdf)

- Other worlds. (Online). Kontsulta data: 2017-06-14.  
<https://otherworldsarepossible.org/la-campesina-building-international-movement-food-and-seed-sovereignty>
  
- Poor People's Campaign (December 4, 1967 – June 19, 1968). (Online). Kontsulta data: 2017-06-21. <http://www.blackpast.org/aah/poor-peoples-campaign-december-4-1967-june-19-1968>
  
- The Guardian. (Online). Kontsulta data: 2017-06-18.  
<https://www.theguardian.com/global-development/2013/jun/17/la-via-campesina-henry-saragih>

## ERANSKINAK

---

1go eranskina: Elkarrizketarako galderak.

Nire lana gizarte mugimenduetan eman diren lidergoen ikerketa bat da, hau da, egungo gizarte globalizatuan, gizarte mugimenduen eta lidergoen arteko loturen hurbilketa. Lan honen helburua, nazioarteko gizarte mugimenduetan (Vía Campesinan eta Emakumeen Mundu Martxan), 90ko hamarkadatik egunera arte, maila globalean zein lokalean lidergoak nola eta zergatik eraiki diren (edo ez) aztertzea da.

### **ELKARRIZKETA / ENTREVISTA**

- Nola ikusten duzu zeure burua mugimenduaren baitan? Zein izango litzateke zure funtzioa? // ¿Cómo te ves dentro del movimiento?, ¿cuál dirías que es tu función?
- Nolakoak izan dira liderrak Vía Campesinan/Emakumeen Mundu Martxan? (Nola eman dira? Beharrezkoak izan dira?) // ¿Cómo han sido los líderes en La Vía Campesina/Marcha Mundial de las Mujeres? (¿Cómo se han dado? ¿Han sido necesarios?)
- Ildo beretik, zeintzuk dira lidergoaren alde onak eta alde txarrak? // En este sentido, ¿cuáles son las partes buenas y las malas del liderazgo?
- Gizarte mugimendu bat liderrik gabe sor/eraiki daiteke? Eta era berean, liderrek, haiek bakarrik (oinarri eta militantziarik gabe), gizarte mugimendu bat eratzeko gaitasuna dute? // ¿Puede un movimiento social emerger sin líderes? De igual manera, ¿son capaces los líderes ellos solos (sin la masa, ni la militancia) de generar un movimiento social?
- Nola hartzen dira erabaki estrategikoak Vía Campesinan/Emakumeen Mundu Martxan? Zein da lidergoaren eta erakundearen antolaketaren arteko harremanaren garrantzia? // ¿Cómo se toman las decisiones estratégicas en la Vía Campesina/Marcha Mundial de las Mujeres? ¿Qué importancia tiene la relación entre liderazgos y estructura organizativa?

- Zein da emakumeen papera lidergoaren baitan? // ¿Cuál es el papel de las mujeres dentro del liderazgo?
- Gizarte mugimendu internazionala izateak, maila erregionalean edo lokalean liderrak agertzea zailtzen du? // ¿El hecho de ser un movimiento internacional dificulta o complica la aparición de líderes a escala local o regional?
- Zeintzuk izango lirateke, egotekotan, alderdietako eta gizarte mugimenduetako lidergoen arteko desberdintasunak? // ¿Cuáles serían las diferencias, en caso de haberlas, entre los liderazgos de los partidos y los de los movimientos sociales?
- Populismoak lider karismatikoen agerpena erraztu du alderdi politikoetan, berdina gertatzen da gizarte mugimenduetan? // El populismo ha facilitado la aparición de líderes carismáticos en los partidos políticos, ¿pasa o ha pasado lo mismo en los movimientos sociales?
- (Vía Campesinaren kasuan) Nola bizi izan da ekologismoaren (nekazal mugimenduaren)/ feminismoaren indartzea instituzioetan? Liderrik behar izan da politika formalera jauzia emateko. // ¿Cómo se ha vivido el fortalecimiento del ekologismo a nivel institucional? ¿Ha sido necesaria la aparición de líderes formales para dar el salto?